

Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzuz Unibertitatean



Economistas
sin Fronteras



Emaús



Aitortu – Ez Komertziala – Partekatu
3.0 lizentzia beraren arabera.

Lan hau libreki kopiatu, banatu eta jakinarazi daiteke, baldin eta egilea adierazten bada eta xede komertziale-tarako erabiltzen ez bada.

Aldatzen edo eraldatzen bada, edo lan eratorriren bat egiten bada, lizentzia berdinaren pean baino ezin izango da banatu.



**Economistas
sin Fronteras**



Emaús

**Argitalpenaren koordinazioa
eta edukien sistematizazioa:**

Laura Ruiz Álvarez

(Economistas sin Fronteras)

Olaia Larruskain Mandiola

(Emaús Gizarte Fundazioa)

Amaia Uribe-Etxebarria Gorostiza

(Emaús Gizarte Fundazioa)

Laguntzailea:

Amaia Alvear Morón

(Máster Universitario en Economía
Social y Solidaria EHU/UPV).

Diseinu eta maketazioa:

Erreka Multimedia S.Coop

2015eko abendua

Babesleak:




**BFA
DFB**
Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

Lankidetzeta Bulegoa
Negociado de Cooperación

1) Aurkezpena	5
2) Laburpena	6
3) Sarrera	8
4) Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzearen garrantzia eta beharra	10
4.1) Zer ekarpen egin diezaioke Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak unibertsitateari?	11
4.2) Zer ekarpen egin diezaioke unibertsitateak Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari?.....	12
5) Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko moduak.....	14
6) Unibertsitatearen eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arteko lankidetzarako esparru posibleak	17
6.1) Lankidetzaren horretarako formulak, moduak eta adibideak.....	18
6.1.1) Prestakuntza	18
6.1.2) Ikerketa	20
6.1.3) Praktikak	21
6.1.4) Mobilizazioa, boluntarioria eta sentsibilizazioa campusean	22
7) Genero-ekitatearen ikuspuntua unibertsitatean, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko	23
7.1) Ekonomia Solidarioaren eta Ekonomia Feministaren (EkoSolFem) arteko loturak	23
7.2) Recomendaciones para que la Economía Justa y Solidaria incluya el Enfoque de Equidad de Género	24
7.3) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko unibertsitateko mobilizazioetan, praktikan, ikerketan eta prestakuntzan txertatzeko erronkak eta gakoak	26
7.3.1) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren unibertsitateko prestakuntzan	26
7.3.2) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko unibertsitateko praktikan	26
7.3.3) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko unibertsitateko ikerketan.....	27
7.3.4) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari buruzko unibertsitateko hezkuntza ez-formalean, sentsibilizazioan, boluntariorian eta mobilizazioan	27
7.4) Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko unean genero-ekitatearen ikuspuntua txertatzeko gomendioak.....	28
8) Kontraste tailerraren ondorioak: Ekonomiaren irakaskuntza Bilboko Ekonomisten Elkargoan	30
9) Gogoeta Egiten Jarraitzeko Zenbait Gomendio.....	34
10) Elkarriketatuko pertsonen datuak eta lana sistematizatzeko metodologia, talde balidatzaileak, eta abar.....	35
11) Erreferentziak eta esteka interesgarriak	39



Dokumentu hau "Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa Unibertsitatean" izeneko Garapenerako Hezkuntzaren proiektuaren baitan dago, eta Emaús Gizarte Fundazioa eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak erakundeek egin zuten 2014/2015 ikasturtean, Donostiako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Proiektuaren xedea da unibertsitateko kideen ezagutza eta konpromisoa areagotzea egitura ekonomiko eta sozial bidezkoagoak eraikitzean, tokiko Giza Garapenerantz aurrera egingez. Horretarako, unibertsitateko programa akademikoetan tradizionalki sartu ohi ez diren hezkuntza-edukiak landuko dira, eta euskal gizartearen balioetan eragina izango da.

Xede hori lortzeko, hainbat mailatan koordinatutako jarduerak proposatzen dira. Batetik, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren dimentsioen curriculum ildoan sartzea azpimarratuko da, prestakuntza-jardueren eta baliabide didaktikoen bidez. Bestetik, berriz, osatu egingo da, campus-mailan egindako sentsibilizazio-jarduerak antolatzearen bidez; horiek xede den publikoaren partaidetza aktiboa sustatzera bideratuta egongo dira, gizartea eraldatzeko asmoz eztabaidarako eta partaidetzarako espazioak baliatuz.

Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa bultzatzeko Gomendioen Gida hau egindako prozesuaren sistematizazio-dokumentu gisa aurkezten da, eta eskuratutako ikaskuntzak ikusgarri bihurtzen eta gizarteratzen ditu. Dokumentuan jasotako edukien oinarria, funtsean, unibertsitateko kide eragileek ekarpenak dira; hain zuzen, Garapenerako Hezkuntzaren irismena areagotzeko haien errealitateak planteatzen diren gomendioak, kezak eta eskaerak. Horretarako, elkarrizketa sakonak egin dira eta hiru euskal unibertsitateetara atxikitako pertsonekin egindako lan-bileretako ondorioak jaso dira. Ondoren, unibertsitateko kideen beste ordezkari batzuekin egiaztatatu dira, baita GGKEekin, erakunde feministekin eta Ekonomia Solidarioarekin lotutako Hegoaldeko erakundeekin ere.

Hortaz, gida hau aurkeztearen helburua da gogoeta egiten hasteko baliatzea curriculum ofizialean eduki alternatiboak sartzeko erronkei eta aukerei buruz, unibertsitateko hezkuntza-espazio formalean eta ez formalean. Batik bat unibertsitateko kideentzat da oro har, baita Garapenerako Hezkuntza lantzen dugun erakundeetarako eta Ekonomia Bidezkoa edo Solidarioaren arloan interesa duten edo lan egiten duten taldeetarako eta pertsonentzat ere. Asmoa ez da dokumentu itxia eta eztabaidaezina izatea; aldiz, eztabaidan sakontzeko eta jasotzen diren ekimenak garatzeko gonbidapen bat izatea nahi da.

1. AURIKKEZPENA

2. LABURPENA

Unibertsitateak zeregin erabakigarria dauka gizarteak jasoko duen alfabetatze ekonomikoaren motari dagokionez; ez du soilik gogoeta kritikoa sustatu behar, baizik eta irakaskuntzako, ikerketako eta gizarte-erantzukizuneko ardatzetan eredu ekonomiko hegemonikorako benetako alternatibak txertatu behar ditu, ekonomia bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzeko. Unibertsitatearen xedea da gizartea eraldatzen laguntzea.

Lehiakortasunaren logikaren aurka, ikuspegi solidario eta lankidetzako ikuspegi baten abantailak ikusgarri bihurtu behar dira Unibertsitatearen ere, nola eduki akademikoetan, hala prozesu pedagogikoetan.

Horretarako, ezinbestekoa da Unibertsitatearen eta haren inguruaren arteko elkarrizketa. Koordinaziorako tarte handia dago unibertsitatearen arloaren eta alternatiba sozioekonomikoak lantzen dituzten erakundeen artean:

- Prozesuen sistematizazioa
- Ikaskuntzen gizarteratzea
- Ezagutza zientifikoa eta tresna praktikoak garatzea
- Premia sozialei erantzutea

Irakaskuntzaren arloan, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren edukiak ikasgelan eskuarki txertatzea irakasleen borondatearen eta banakako konpromisoaren araberakoa da, edo erakundeak babesten dituen zeharkako gaiekin duen loturaren araberakoa (berdintasuna, ingurumena, gizarte erantzukizuna, garapenerako lankidetzeta, etika edo balioetan oinarritutako hezkuntza...).

Hala ere, Unibertsitateko pizgarrien eskemak ez du lehenesten edukien edo ikuspegi pedagogikoen berrikuntza; izan ere, ebaluazio- eta meritua-sistemak zigortu egiten du irakaskuntza ikerketaren aurrean. Gainera, aitortutako ikerketa indexatutako aldizkarietan argitaratzen dena da, eta horietan, ikuspegi heterodoxoagoa duten artikuluak argitaratzeko aukera mugatua da.

Bestalde, Gradu Amaierako Lanek (edo Master Amaierakoko Lanek) indar handia dute Ekonomia Bidezkoago batekin lotutako ikerketak egiteko edo proposamenak garatzeko gizarte erakundeen premia praktikoaren edo estrategikoen aurrean.

Halaber, Ekonomia Bidezko eta Solidarioaren arloko ekimenek eta erakundeek unibertsitateko ikasleei zuzeneko ezagutzako esperientziak eskaini diezaiekete, praktikak eginez espazio eta prozesu horietan. Autokudeaketa bat bizitzea, adibidez,

indar handiko prozesu pedagogiko bat da. Gainera, Ekonomia Bidezko eta Solidarioko enpresak eta gizarte-ekintzailak bera ere aukera onak dira ikasleek ibilbide profesionala garatu ahal izateko.

Unibertsitate arloan koordinatutako beste aukera batzuk ere badaude ikasleak sentsibilizatzeko, hala nola prestakuntza osagarria, hezkuntza ez formala edo boluntariotza; horiek jarraipen eta ikusgarritasun handiagoa behar dute. Bestalde, ez dira ahaztu behar campusaren inguruan egituratutako ikasleen mugimenduak eta erakundeak, diskurtso kritikoa dutenak gaur egun nagusi den sistema ekonomikoarekin eta sozialarekin.

Unibertsitatean proposamen alternatiboak planteatzerakoan azpimarratu egin behar dugu izaera eraldatzailea honako honetara baldintzatuko duela, besteak beste: apustu politiko gisa genero-harremanen esparru berri bat eraikitzeke kezka eta konpromisoak.

Ikuspegi horretatik begiratuta, ohiko eredu ekonomikoa aztertzean, garrantzitsua da nabarmentzea ekonomia feministak aztergai dituen alderdiak, esaterako bizitzaren iraunkortasuna edo lanaren kontzeptua, pertsonak erdigunean jarri nahi dituztenak.

Azkenik, Unibertsitatetik Ekonomia Bidezko eta Solidario bat sustatzeak gogoeta prozesu bat egitea eskatzen du, eta horren bidez erantzunak ematea modu parte hartzailean: Zer eskatzen dio gizarteak ekonomiari? Zein dira arazo nagusiak? Zer erronkei egiten diegu aurre? Zein dira gure hezkuntza sistemen aukerak eta ahultasunak erronka horiei aurre egiteko? Eta orduan, zein dira unibertsitatetik egiten diren proposamenak?

“Krisian dagoena ez da munduko ekonomia bakarrik. Ekonomiaren irakaskuntza ere krisian dago, eta krisi horren ondorioak unibertsitatetik harago doaz. Unibertsitatean irakasten denak hurrengo politikari-belaunaldien pentsaera moldatzen du, eta, beraz, forma ematen dio gure gizarteari. Ez gaude gustura azken bi hamarkadetan ikasketak planak izan duen pixkanakako pobretzearekin. Aniztasun intelektualaren gabezia horrek hezkuntza eta ikerketa kaltetzen ditu, baina, horrez gain, hogeita batgarren mendeko erronkei aurre egiteko dugun ahalmena mugatzen du (finantza egonkortasuna, elikagaien segurtasuna, klima-aldaketak...). Mundu errealarari ikasgeletan sartzen utzi behar diogu berriz, eta, horrekin batera, eztabaida eta teorien eta metodoen aniztasuna berreskuratu behar ditugu”.

(Ekonomia-zientzietako ikasleen nazioarteko deia. 2014ko udaberria.)

3. SARRERA



Emaus Gizarte Fundazioko kideontzat, **ekonomia solidarioa** baliabide bat da, ez helburu bat, eta ekonomiaren ikuskera eta praktika horiek pertsonaren eta komunitatearen garapenaren zerbitzura egon behar dute; pertsonen bizi-kalitatea eta gure gizarte-ingurunea hobetzeko tresna izan behar dute. Kontzeptu horren sustraiak, beraz, pentsamenduaren eta jarduera ekonomikoaren kontsiderazio etiko eta humanista batean daude, zeinaren arabera pertsona eta komunitatea garapenaren ardatzak diren.

Ekonomia solidarioak, hain zuzen, begirada bat, balio batzuk eta praktika batzuk jartzen ditu gizarte-eraldaketaren zerbitzura. Erakunde- eta jarduera-multzo bat biltzen duen gizarte-mugimendu bat eratzen du, eta mugimendu hori pentsamendua eta ekonomiaren praktika alternatibo eta solidario bat sortzen ari da, mundu osoan, ekoizpenean, finantzaketan, merkaturatzean eta kontsumoan.

Bestetik, **Mugarik Gabeko Ekonomialariontzat**, bidezko ekonomia pertsona guztien zerbitzura dagoen ekonomia da, non guztiok parte hartu ahal izango dugun eta ez garen kontsumitzaile huts izango. Ekonomiaren antolakuntzak kontuan hartu behar du giza-eskubideen aitortze esplizitua, eta enpresak, agente ekonomiko den aldetik, helburu bera izan behar du erabakiak hartzeko analisisian erabiltzen dituen aldagaien artean.

Espekulaziorik gabeko ekonomia bat, bidezko merkataritza-arauak izango dituenak, non elikadura, osasuna eta hezkunt-



za ez diren salgai izango, eskubide baizik. Lehian oinarrituko ez den ekonomia, elkartasunean baizik. Izadia suntsituko ez duen ekonomia, babestu baizik. Azken batean, gizartea eraldatzeko balioko duen ekonomia.

Horiek horrela, Emaus Gizarte Fundazioa eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak **Ekonomia Bidezko eta Solidarioaren** kontzeptura heltzen dira, praktikatik beretik –pertsonek ongizatean oinarritutako ekonomia alternatibo baten alde diharduten erakunde gisa– eta garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzan egiten duten lanetik –nazioarteko harreman ekonomikoen ondorioei, Hegoaldeko laborarien eta ekoizleen egoerari eta kontsumo arduratsuari buruzko sentsibilizazioa–. Horrek guztiak barne gogoeta batera eraman gaitu, gizartearen beharrei erantzuneko dien eredu ekonomikoari buruzkoa.

Ekonomia solidarioko sareetan eta unibertsitateetan parte hartuz, baita hainbat foro eta eztabaidetan ere, eta ekonomia solidarioko enpresa-taldearen esperientziaz baliatuz, gogoetari ekin genion ekonomia bidezkoa eta solidarioa hezkuntzan sartzeko beharri buruz, goi-mailako hezkuntzan bereziki.

Hori dela-eta, proposamen honek jarraipena eman nahi dio Emaus Gizarte Fundazioak eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak **Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa** bultzatzeko unibertsitateetan eta lan sareetan egiten duten lanari.

4. Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzearen garrantzia eta beharra

Unibertsitateak hiru helburu edo ardatz nagusi ditu: irakaskuntza, ikerketa eta gizarte-erantzukizuna ¹. Dena den, desoreka dago hiru ardatz horietara bideratutako aurrekontu eta baliabideetan, bereziki gizarte-erantzukizunaren kasuan. Hori dela eta, ahuldu egiten da unibertsitateak gizarte-eragile gisa duen zeregina. Unibertsitateak, ikasleak lan-mundurako prestatzeaz gain, bere jatorrizko ikuspegia eta xedea nabarmendu beharko luke; alegia, pertsonak prestatzea eta ahalduntzea, baita balioak transmititzea eta ikasleengan gizartearekiko konpromiso kritikoa sustatzea ere: pertsonen unibertsitatea, pertsonentzat. Unibertsitatea pentsaera aldaketaren eragilea da. Badaki zer nolako zeregin garrantzitsua duen, etorkizuneko profesionalak eta herritarrak prestatzen baititu.

Brasilen, São Pauloko Unibertsitateko Ekonomia Solidarioaren Nukleoaren (NESOL) ², ekarpenarekin bat etorritik, unibertsitateak 3 ardatz dituela uste da: *irakaskuntza, ikerketa eta unibertsitate-hedapena. Testuinguru horretan, unibertsitate-heda-*

penaren kontzeptua eta, beraz, unibertsitatearena berarena, ez da soilik zerbitzuak ematen dituen erakunde baten edo sortutako ezagutzaren ordain gisa ezagutza hedatzen duen erakunde bat, harago doa. Unibertsitate-hedapenak, unibertsitatearen eta gizartearen arteko topagune gisa ulertuta, ezagutza eraikitzea ahalbidetzen du, unibertsitatearen eta bere inguruaren arteko harreman dialogikotik abiatuta (bereziki, unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen eta herri-klaseen arteko harremanetik): gizarteari on egiten dio bere errealitateari buruzko hausnarketa sistematikoa egiteak; eta, bestetik, unibertsitateari on egiten dio errealitatearekin kontaktuan egoteak, horrek ekoizpen akademikoa sendotzen baitu. Beraz, unibertsitate-hedapena eremu emankorra izan daiteke irakaskuntza prozesuak aplikatzeko eta batoratzeko (esaterako, eskoletan ikusitako edukiak praktikan jarritz), eta ikerketa-prozesuak sendotu egin daitezke sortutako hipotesiak egiaztatzeko aukerari esker.

Bizi dugun krisi ekonomikoa eta egungo ekonomia-eredu hegemonikoaren gizarte- eta ingurumen-eraginak ikusita, beharrezkoa da unibertsitateak eredu horri eta gehiengoak duen ekonomiaren ikuspegiari (ekonomia neoliberalak) buruzko hausnarketa bat egitea; baina, beharrezkoa da, halaber, Ekonomia Bidezkotik eta Solidariotik lantzen diren benetako alternatibak txertatzea eta agerian jartzea bere irakaskuntza-, ikerketa- eta gizarte

¹ Uste dugu Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) dela beren jardueren alderdi guztiek dituzten eraginak kontuan hartzen dituzten enpresek negozioak egiteko duten modua. Hona hemen eragin horiek jasaten dituztenak: bezeroak, langileak, akziodunak, tokiko komunitateak, ingurumena eta, oro har, gizartea. Horrek esan nahi du nahitaez bete behar dela legeria nazionala eta zerga-, gizarte-, lan-, ingurumen- eta giza eskubideen esparruetako nazioarteko araudia. Horrez gain, barne hartzen du enpresak bere langileen bizi-kalitatea, inguruko komunitateak eta, oro har, gizartea hobetzeko gauzatzen duen borondatezko beste edozein ekintza (Economistas sin Fronteras, <http://ecosfron.org/responsabilidad-social-corporativa/>).

² <http://cirandas.net/nesol-usp/>

erantzukizuneko ardatzetan, bai Euskal Herrian bai mundu osoan.

Unibertsitateak zeregin garrantzitsua du gizartean jasotzen duen alfabetatze ekonomiko mota zehazteko orduan; ezin du Ekonomia aurkeztu loturarik eta gizarte- nahiz ingurumen-eraginik gabeko diziplina neutro gisa, edo ikuspegi unitario eta bakarra duen zientzia aldaezin eta eztabaida ezin gisa. Agerikoa eta kezkarria da azken urteetan ekonomia gainerako gizarte-zientzietatik bereizita agertzen dela. Teorien eta zifren atzean, erabaki ekonomikoen eragina eta ondorioak jasango dituen gizarte bat dago. Unibertsitatearen ardura da ikasleei ulertaraztea eragin horrek duen garrantzia, arazo ekonomikoei gizarte osoarentzat onuragarriak diren konponbide ekonomikoak eman ahal izateko. Unibertsitateak pertsonak prestatzeko eremua izan behar du, munduaren ikuspegi kritiko baten bidez, pertsona horiek gizarteko **arazoei konponbideak emateko gai** izan daitezen, ikuspegi berrietatik eta, betiere, ekonomiaren aurrerapenaren alde eginez, errealitatea ikertzen duen diziplina den heinean.

Lan hori aurrera eramateko, interesgarria litzaiteke gizarteko arazo horiek eta izan ditzaketen konponbideak identifikatzeko prozesu parte-hartzaileak gauzatzea; horretarako, funtsezkoa da unibertsitateak eta bere inguruneak hitz egitea, tokiko herritarrei entzutea eta tresnak eta metodologiak egokitzea, prozesu hori hobetzeko.

Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa kontuan hartzeak ekonomiaren ikasketan, irakaskuntzan eta ikerketan aberastu egiten ditu prozesu horiek, ikuspegi kritikoarekin eta errealitatearekin lotzen baititu. Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren edukiak, proposamenak, debateak, adibideak eta praktikak unibertsitatean txertatzeak indartu egiten ditu Ekonomiako irakasgaien irakaskuntza-prozesuak, ikasleak nahiz irakasleak gerturatuz pertsonak eta ingurumena ekonomiaren oinarritzat dituzten benetako esperientzia eta praktiketara (paradigma ekonomiko nagusian gertatzen ez den bezala).

Hala, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren edukiak unibertsitate-ikasgeletan sartu dituzten Economistas sin Fronteras eta Emaús Gizarte Funda-

zioaren esperientzietan, ikasleek eskaintzen diren aukerenganako interes handia agertu dute. Horrez gain, kasu gehienetan, adierazi dute lehen aldiz egon direla harremanetan errealitate horrekin. Irakasleek, bestalde, adierazi dute Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioarekiko kontaktu horrek arrastoa uzten duela ikasleengan, ondorengo lan eta hausnarketetan kontuan izaten baitituzte Ekonomia Bidezkoa eta Solidariotik iradokitako gogoeak.

4.1) Zer ekarpen egin diezaioke Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak unibertsitateari?

Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak unibertsitateari egin diezaiokeen ekarpenik garrantzitsuena da beste gizarte- eta ekonomia-eredu bat eskaintzea; izan ere, eredu horrek balio etikoak eta gizatiarrak bultzatzen ditu, pertsonari lehentasuna ematen dio eta ekonomia eta enpresa egiteko beste modu bat badagoela erakusten du.

Kasu gehienetan, unibertsitateko diziplina ekonomikoak ez du aztertzen ikuspegi eta proposamen ekonomikoen aniztasuna, eta korrante ekonomiko nagusiari eskaintzen dio arreta osoa. Alabaina, bai EAEn bai mundu osoan badaude proposamen kritikoak ere; horiek ez dira utopiak, eta benetako konponbideak eskaintzen dizkiote gizarteari. Unibertsitateak, bere gradu eta irakasgaietan (Ekonomia, Enpresa, Kudeaketa...), ikasleak enpresa- eta antolamendu-eredu ortodoxoetarako prestatzen ditu oro har, eta unibertsitatearen prozesu horrek eredu ekonomiko nagusia sendotzen du. Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa ikasleen prestakuntzan sartzeak ahalbidetu egingo luke sistema gizatiarragoa eraikitzea eta herritarrak kritikoagoak izatea jardunbide ekonomiko bidegabeekin edo gizartearekiko eta ingurumenarekiko errespeturik ez dutenekin.

Bestalde, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak lehentasuna ematen die kooperazioa, elkartasuna eta halako balio eta printzipioei, gaur egungo beharrei beste era batera aurre egiteko. Horrela, ekonomia-eredu horrek alde batera uzten du lehiakortasuna aukera posible bakarra dela adierazten duen ideia. Garrantzitsua da balio eta printzipio horiek unibertsitatean ere lekua izatea eta kapitalismoaren ikuspegi indibidualistarekin alderatuta

dituzten alde onak agerian uztea eta nabarmentzea; hori ez da edukietan bakarrik islatuko, baizik eta pedagogian ere.

Horrez gain, irakasleen arabera, ikasleek askotan sinesgarritasun handiagoa ematen diete esperientzia praktikoei alderdi akademikoari baino; hori dela eta, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren inguruko aukerak eta eztabaidak gertutik ezagutzea (esaterako, sare hauetako kide direnak: REAS, GIZATEA, Olatukoop...) aberasgarria izan daiteke ekonomiaren ikaskuntza-prozesuetarako, bisitaldien, mintegien, praktiken eta abarren bidez. Hala, alderdi akademiko eta profesionala elkarren osagarri izango dira, eta ikasleek beste balio eta prozesu batzuk esperimentatu eta bizi ahalko dituzte Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren testuinguruan, harreman teorikotik eta behaketa pasibotik harago. Alderdi akademikoaren eta profesionalaren arteko osagarritasun edo topaketa hori edozein gradutan jar daiteke martxan, baita masterretan ere.

Horrez gain, Ekonomia Bidezko ikuspegiak eta Ekonomia Bidezko eta Solidarioko erakundeek honako ekarpen hauek egin ditzakete:

- Irakaskuntza-berrikuntza: alderdi akademiko eta praktikoa uztartzen dituzten ikasketako prozesuak proposatzea Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloan eta gizarte-justiziaren eta giza eskubideen ikuspegiak txertatzea ekonomiaren ikaskuntza-prozesuan.
- Prestakuntza ematea beren lan-ardatzetan beste ikuspegi eta proposamen ekonomiko batzuk txertatu nahi dituzten irakasleei eta unibertsitate ikertzaileei.
- Unibertsitateen eta Ekonomia Bidezko eta Solidarioa lantzen duten erakundeen arteko lana koordinatzea, unibertsitate bakoitzeko prozesuak sistematizatuz, hainbat irakaslerekin, beste gradu, fakultate eta master batzuekin parteka daitezkeen ikasketak lortzeko; betiere Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa unibertsitatean sartzeko helburuarekin.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioak egiten duen beste ekarpen bat da autokudeaketaren bizi-

pena bera (hala sustatzen dute ikuspegi ekonomiko horren eragileek). Bizipen hori, bere horretan, indar handiko prozesu pedagogikoa da, eta unibertsitateak asko du ikasteko bertatik, bai esperientzia horiek sistematizatzeari dagokionez bai barneko prozesuak autokudeatzeko moduak bere eginez.

4.2) Zer ekarpen egin diezaioke unibertsitateak Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari?

Eman eta jasotzean datza. Unibertsitateak Ekonomia Sozial eta Solidarioko enpresen kudeaketa-sistemak hobetzen lagun dezake, enpresa kapitalisten funtzionamendua hobetzetik harago joanez. Hala, enpresen kudeaketari buruzko beste ikuspegi bat sar dezakegu, nahiz eta ikasleek Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioko erakundeetan lan egin edo ez etorkizunean, zenbait alderdi kontuan hartuz: parte hartzea, berdintasuna, genero-ekitate³, eta abar.

Ildo horretan, unibertsitateak bere ahalmen eraldatzaile guztia erabil dezake ezagutza praktikoa eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren mugimendua garatzen lagunduko duten ezagutza praktikoa eta tresnak garatzeko, eta horren iraunkortasuna hobetzeko, irakaskuntzaren, intzidentziaren, ikerketen, ekintzen eta halakoen bitartez. Azkenik, unibertsitateak Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin lotutako gizarte-ekintzailtza⁴ susta dezake bere irakasgaietan, graduetan, masterretan eta institutuetan.

Unibertsitateak, erakunde eraldatzaile den heinean, gizartean protagonismo gehiago izaten saiatu beharko luke irizpide etikoak sustatzeko garaian eta gizarteko beharrei erantzungo dieten konponbide berritzaile eta praktikoa eskaintze-

³ Ikus Hegoak eginiko generoaren definizioa, baita online hitzegian genero-ekitateari eginiko erreferentziak ere: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/108>

⁴ Europako Batzordea: Gizarte-ekintzailtzak eragin esanguratsua du gizartean, ingurumenean eta tokiko komunitatean, gizarte- eta ekonomia-eraldaketak sorrarazten baititu. Oraindik erantzuteke dauden beharrei gizarte-berrikuntzaren bidez erantzutean, gizarte-enpresak hazkuntza adimentsu baten parte bihurtzen dira. Beren ingurumen-eragina eta epe luzera duten ikuspegia kontuan hartuta, hazkuntza iraunkorra sortzen dute. Horrez gain, pertsoneri eta gizarte-kohesioari arreta berezia eskaintzen dietenez, gizarte-enpresak garapen inklusiborako abiapuntu dira. http://ec.europa.eu/internal_market/publications/docs/sbi-brochure/sbi-brochure-web_es.pdf. Ekintzailtzari eta gizarte-berrikuntzari buruzko UNEDen proposamena: Gizarte-ekintzailtzaren definizioa: <https://www.youtube.com/watch?v=j3qlprad0Ms>



ko garaian, bai ekonomiaren arloan bai gainerako diziplinetan. Unibertsitatea gizarte aldakor bateko parte izango diren eta bertan lan egingo duten pertsonak prestatzeaz arduratzen da; pertsona horiek etorkizuneko motor eta aldaketaren protagonista izango dira.

EAEko unibertsitateek berriaz aipatzen dituzte gizarte-eraldaketa eta gizarte erantzukizuna beren xedeetan; horrek ahalbidetu egiten du Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren protagonismoa, eta sustatu egiten ditu ikasleek xede horiei erantzun dieten ekimenetan zuzenean lan egiteko/parte

hartzeko prozesuak, bai modu arautuan bai arautu gabean. Ikaskuntza Zerbitzua ⁵ bezalako ekimenak egokiak izan daitezke ikasleak Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioko ekimenetan barneratzeko. Horrez gain, aurrera egin daiteke ikaskuntza- eta ikerkuntza jardueretan eta prozesuetan, eta kanpaina birtualetan, gizarte-sareen bidez, egungo ikasleen kezkei erantzuteko.

⁵ Ikaskuntza Zerbitzua ekimenean, ikasleek egoera bat aukeratzen dute beren inguruan, eta hori hobetzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako, proiektu solidario bat jartzen dute martxan, beren ezagutzak, trebeziak, jarrerak eta balioak erabiliz. Heziketarako jarduera bat da eta, horren bidez, gazteek ikasi egiten dute, benetako beharrei erantzuten dieten bitartean, egoera hobetze aldera. Ikaskuntza-Zerbitzuaren Espainiako Sarea: <http://aprendizajeservicio.net/bienvenida/> eta Zerbikas <http://www.zerbikas.es/>.

5. Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko moduak

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ⁶, Unibertsitateen Taldeak bi ildo estrategiko edo bide nabarmentzen ditu unibertsitate kritiko eta konprometitu bat sustatzeko. Guk hemen jaso ditugu, proposamen gisa, Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko egokiak iruditzen baitzaizkigu:

- Eragina izatea erabaki esparruetan: Unibertsitatearen erabaki- eta influentzia-esparruetan eragina izan dezakegu, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioko edukiak eta praktikak sartzeko. Bide horri ekiteko, gomendio/estrategietako bat da harremanetan jartzea eskoletako zuzendari-ekin edo fakultateetako dekanodekanordeekin, horiek eskolen/fakultateen ikuspegi orokorra baitute.
- Jardunbide egokiak identifikatzea, agerian jartzea eta sustatzea: Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko jardunbide egokiak eta gomendioak identifikatzea eta agerian jartzea unibertsitatearen esparru eta prozesuetan (hori da, hain zuzen ere, dokumentu honen helburu nagusia) erabilgarria izan daiteke esperientzia

horiek beren testuinguruetatik eta beharretatik abiatuta ezarri eta erreplikatu nahi dituzten unibertsitate-komunitateko eragileentzat.

T Bai eragin-prozesuak bai jardunbide egokiaren sustapena beharrezkoak dira Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa ikasketa-planetan sartzeko; bereziki, plan horiek berritzen diren uneak aprobetxatuz (Ikasketa Planen Batzordeen eskutik). Ikasketa planek egungo eredu ekonomiko eta sozialaren ikuspegi kritikoa bermatu behar lukete, baita egungo alternatibena ere (ekonomian eta beste diziplina batzuetan). Horrez gain, irekiagoak izan behar lukete, ikasleen eta gizarte- eta ekonomia-esparru hegemonikoak eraldatu nahi dituzten gizarte-mugimenduen iritziak eta proposamenak jasotzeko.

Edonola ere, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren edukiak eta praktikak titulu ofizialetan sartzeko konplexuagoa izan daiteke unibertsitate bakoitzeko berezko tituluetan sartzeko baino; izan ere, horiek malgutasun handiagoa dute gai berriak sartzeko.

Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren sustapen estrategikoa eta praktikoa egiteko, zenbait mailetan (esaterako, ikasketa-planak egiteko batzordeak, errektoreordetzak, ministerioak, unibertsitateko gobernu-sail eta hezkuntza-kontseilaritzak, eta,

⁶ http://www.ongdeuskadi.org/es/de_interes/eventos_details.php?id_eve=2601&date=2014-12-15%2016:00:00
http://www.ongdeuskadi.org/es/de_interes/eventos_details.php?id_eve=2249&date=2014-01-22%2015:00:00

Vicente Manzanoren Unibertsitate Konprometitua: <http://tratarde.org/la-universidad-comprometida-libro-de-vicente-manzano-en-pdf/>

besteak beste, ikasketa-planak onesten dituzten kalitate-agentziak), beharrezkoa da lobby politikoa izatea Ekonomia Bidezko eta Solidarioko sareen, itunen, koordinakundeen eta plataformen aldetik, eta gizarte- eta ekonomia-eraldaketarantz aurrera egin nahi duten beste gizarte-erakunde eta -mugimendu batzuen aldetik.

Eremu, talde, batzorde eta unibertsitateko errektoreordetza batzuk irekiago egoten dira topaketarako, hausnarketarako eta Ekonomia Bidezko eta Solidarioko eragileekin lankidetzan aritzeko. Horren arrazoia izan daiteke talde horiek osatzen dituzten pertsonak sentsibilizatuago egotea, edo beren ohiko laneko gaiek eta prozesuek ekonomia-eredu horrekin zerikusia izatea (berdintasuna, ingurumena, gizarte erantzukizuna, garapenerako lankidetzeta...). Horiek sarbide egokiak izan daitezke lankidetzaren egonkorra ezartzeko unibertsitate-komunitateko hainbat eragilerek.

Bai eragin-prozesuetarako bai unibertsitatean Ekonomia Bidezko eta Solidarioko jardunbide egokiak identifikatzeko eta sustatzeko, estrategikoa litzateke koordinazio eta sistematizazio kolektiboa hobetzea, alde batetik, GGKEen eta Ekonomia Bidezko eta Solidarioko eragileen eta, beste alde batetik, unibertsitatearen arteko solasaldietan; izan ere, banakako harreman eta lankidetzaren ugari daude (adibidez, GGKEen eta irakasleen artean), baina ez dira behar bezala sistematizatzen, agerian jartzen eta partekatzen antzeko gaiak sustatzen dituzten beste talde batzuekin. Ondorioz, galdu egiten dira eragina hobetzeko eta sinergiak indartzeko aukerak. Proposamen hau are egokiagoa da kontuan izanik kasu askotan lankidetzak eten egiten direla, finantziatorik ez dagoelako edo irakasleak aldatu direlako. Kasu horietan, lehendik pilatutako ikasketa eta prozesuak galdu egiten dira.

Askotan, GGKEentzat eta Ekonomia Bidezko eta Solidarioko talde eta enpresentzat, unibertsitatearekiko lankidetzaren unibertsitateko irakasleekin harremanetan jartzen direnean hasten da. Hein handi batean, irakasleek badute marjina jakin bat Ekonomia Bidezko eta Solidarioko edukiak, praktikak, kasuak, esperientziarako bisitaldiak eta halakoak programazioan sartzeko. Hori dela eta, eragile horien banakako nahiz taldeko sent-

sibilizazioa funtsezkoa da. Lankidetzaren ezin hobea izan dadin, proposamenak egitean edo lankidetzaren prozesuak ezartzean kontuan hartu behar dira irakasleen zeregin profesionaleri buruzko alderdi hauek:

Irakasleen irakaskuntza-zereginak:

Irakaskuntza ez da irakasleen funtzioen artean gehien baloratzen dena; ikerketak (zientzia-artikuluak argitaratzea) gero eta garrantzi handiagoa du. Beraz, horrek esan nahi du, oro har, ez zaiola lehentasuna ematen materialak, edukiak, ikuspegi pedagogikoak, etab. berritzeari. Egoera hori kontuan izanda, garrantzitsua da gure proposamenak irakasleen egoerara eta beharretara egokitzea.

Irakasleek badute askatasun pixka bat Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioarekin bat datozen edukiak, praktikak, bisitaldiak eta halakoak sartzeko gizarte- eta ekonomia-diziplinako irakasgaietan, graduatan, eta abarretan. Dena den, ikasketa teknikoetan ere ikuspegi alternatiboak sar litezke, ariketa praktikoetako (estatistika, matematika...) enuntziatuen bidez; esaterako, ikasleak egungo kasu eta egoera errealean aurrean jarritz.

Ekonomiaren eta gizartearen ikuspegi alternatiboak eskoletan eta praktiketan sartzean, bai gizarte taldeek bai irakasleek asko irabaziko dute; izan ere, gauzatutako prozesuak eta pilatutako ikasketak komunean jarriko dituzte. Esaterako, irakasleek pizgarriak jaso ditzakete egiten dituzten berrikuntza pedagogikoengatik, ikasleek beren lanaren balorazio hobek egingo baitituzte.

Irakasleen ikerketa-zeregina:

Gaur egun, unibertsitatean martxan dagoen ebaluazio- eta merezimendu-sistemarekin, irakasleek argi dute profesionalki aurrera egiteko lehentasuna eman beharke diotela ikerketari, eta ez irakaskuntzari. Beraz, garapen profesionalerako, beharrezkoa da seiurtekoak



gainditzea (ANECA bezalako agentziek ebaluatzen dituzte); horretarako, 5 zientzia-artikulu argitaratu behar dituzte 6 urtetan. Artikulu horiek izen handiko aldizkarietan argitaratu behar dira eta, aldi berean, aldizkari horiek indexatuta egon behar dute (Scopus eta Journal Citation Report, JCR). Irakasle bati seiurtekoa onesten badiote, irakaskuntzari denbora gutxiago eta ikerketari gehiago eskaini ahal izango dio hurrengo 6 urteetan. Seiurtekoa lortzen ez badu, ordea, ezin izango du doktorego-tesirik zuzendu.

Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren esparruan, aldizkari bakarra dago Scopus-en indexatuta: Revesco. CIRIEC-en Economía Pública, Social y Cooperativa aldizkaria indexatze-prozesuan dago; beraz, ez dago aukera askorik Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren inguruko artikuluak aldizkari indexatuetan argitaratzeko. Ez dugu harritu behar, beraz, ikertzaile askok ekonomia-artikuluak ikuspegi hegemonikoagoetatik argitaratzen dituztela ikustean.

Alabaina, eragin handiko aldizkarietan argitaratutako artikulu horiek, askotan, ez dira publiko orokorrarengana, ikasleengana edo gizarte-taldeengana iristen. Irakasle askok kritikatzan dute ez dagoela unibertsitate-ikerketaren ikuspegi horretatik sortutako ezagutzarako irisgarritasunik. Proposamen bat izan daiteke, aldizkari

horietan argitaratzeaz gain, argitalpen ezagunagoetan ere egitea.

Bestalde, ikerketen gizarte-eragina gero eta gehiago baloratzen da (Impact Europeo ⁷ proiektua); izan ere, ikerketak diru-laguntza publikoa jasotzen badu, nolabait gizarteari itzuli egin behar zaiola uste da. Ilde horretan, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko eragileek lankidetzaren modu berriak aurki ditzakete unibertsitateekin, hitzarmen eta ikerketa-proiektu partekatuen bidez.

Interesgarriak dira, halaber, ikertzaileen ikaskuntza eta topaketa sustatzen duten ekimenak ⁸, esparru akademikoan eta ikerketaren/herrri-ekintzaren esparruan.

Edonola ere, funtsezkoa da Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren esparru guztietan ikerketa sustatzea; izan ere, hala egin ezean, eginiko lana ez da aintzatesten eta agerian geratzen. Egindako guztiaren informazioa sistematiza daiteke, datuak eta ondorioak atera, eta, hala, errentagarritasun akademikoa atera unibertsitatearen eta Ekonomia Bidezko eta Solidarioaren taldeen arteko lankidetzaren prozesuei.

⁷ <http://impact-ev.eu/>

⁸ <http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/800/Elkadura+Burujabetza+eta+Agroekologia+ikertzen.+Ba+ote+dago+Elkadura+Burujabetza+eta+Agroekologian+euskal+ikertzaile+sare+bat+sortzerik%253F>

6. Unibertsitatearen eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arteko lankidetzarako esparru posibleak

Hauek dira orain arte Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren eragileek eta unibertsitateek erabili dituzten ekintza-ildo nagusiak: kanpainen bitarteko sentsibilizazioa (erakusketak, liburuxkak...), ikasgelako esku-hartzeak (esaterako, bisitaldien

bitartez), bitartekaritza enpresekin... Hona hemen Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren esparruaren zein bertako eragileen eta unibertsitatearen arteko elkarlana sustatzeko zenbait ekintza-ildo:

- Ahalegin handiagoa egitea Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa eta enpresa alternatiboak unibertsitateko ikasle eta irakasleengana hurbiltzeko eta ezagutzera emateko. Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren eragileek unibertsitateko zein unibertsitate arteko topaketetan eta masterretan parte hartzea, ahotsa izan dezaten eta ezagutzak parteka ditzaten.

- Hitzarmenak eta elkarlana unibertsitatearen eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioan lan egiten duten elkarleen artean, elkarrekin proiektuak gauzatzeko. Egun, oso lan gutxi egiten da esparru horretan, hitzarmenak oso partzialak dira. Planifikazioa eta koordinazioa ezinbestekoak dira proiektuek Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren eta, zehazki, elkarrekin jakinen beharrei eta erronkei erantzun ahal izan diezaizuten. Beharizan makroak eta mikroak aintzat hartuta, proiektu-zorro bat gauzatzea.

- Gradu Amaierako Lanetan dago lankidetzarako aukerarik argiena Ekonomia Bidezkoa eta

Solidarioaren eta unibertsitatearen artean. Esaterako, ekonomia eta enpresaren arloko graduatan, GALetan sakon azter litezke egun garrantzi handia duten eta graduari landutako gaitasunekin zerikusia duten gaiak. Bestalde, ikasleek proposatutako enpresa-idea baten negozio-plana egin liteke, edo kanpoko ekintzailetza-ekimenak oinarri hartu. Bai kasu batean bai bestean, GAL horietan tokia egongo litzateke Ekonomia Bidezkoagoa eta Solidarioagoa sustatzeko.

- Ekonomia Bidezko eta Solidarioaren erakundeek hausnarketa- eta elkarrizketa prozesua erraz dezakete ikasgai bakoitzean, beren gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-funtzioari, gizarte-, ekonomia eta ingurumen-balioei eta martxan jartzean ager daitezkeen dilema etikoei buruz.

- Benetako gizarte-arazoak planteatu ditzakete, eta ikasleek horiei konponbideak bilatu behar dizkiete unibertsitate eta gradu bakoit-

zako lan-metodologiak erabiliz. Helburua izango litzateke ikasleek erronkak identifikatzea, konponbideak proposatzea eta erantzunak diseinatzea eta ezartzea. Kasu praktikoak erabil litezke azterketa eta hausnarketa egiteko, eta ikasgelan jarduera errealak aurkez litezke, konponbideak bilatzeko abiapuntu gisa.

- Ekonomia Sozial eta Solidarioko enpresak aurkeztea, ikasleek bertan praktikak egiteko pro-

posamen gisa.

- Ekintzailatza sozial eta solidarioa babesten, laguntzen eta ezagutarazten duten unibertsitate-espazioak eta -prozesuak ahalbidetzea.

- Ikasleek autogestioa bizitzeko espazioak sustatzea, kultura eraldatzaile bat eraikitzeke eta ikasteko tresna gisa.

6.1) Lankidetzaren horretarako formulak, moduak eta adibideak

6.1.1) Prestakuntza.

Ekonomiaren finantziarizazioak nabarmenki markatu du globalizazio-prozesua; prozesu hori ez da bere kasakoa izan eta, azken hogeita hamar urteotan, eraldaketa sakonak eragin ditu egungo gizartearen esparru gehienetan. Tokian tokiko arazoak, konponbideak bezalaxe, global bilakatu dira. Hauek dira egun nagusi den ekonomia sistema definitzen duten hitz-gakoak: enpresa nazionalen eragina, finantza-ekonomia ekonomia errealari gailentzea, paradisu fiskalak existitzea, edo (herrialde arteko, herrialde barruko eta genero arteko) desberdintasun gero eta handiagoa. Krisialdiak aukera-une bat ireki du; une hori aprobetxatu beharra dago, eta krisialdiaren kausei, ondorioei eta alternatibei buruzko eztabaida bat behar dugu, bidezkoagoa eta solidarioagoa den ekonomia bat eraikitzeke, baita euskal unibertsitateetako prestakuntza-prozesuetan ere. Ezinbestekoa da ekonomia-eredu hegemonikoaren eta bere ondorioen beste ikuspuntu batzuk aurkeztea eta azterketa kritikoa egitea; horretarako, egungo ekonomia-prozesuen eraginak bereizi egin behar ditugu, gizonei edo emakumeei eragiten dieten kontuan hartuz, edo herrialde eta kontinente ezberdinak kontuan hartuz.

Esaterako, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko **Ekonomia Ikasleen Elkarteak**⁹, krisi sakona eta luzea salatu du Ekonomiako ikasleen prestakuntzan; gainera, krisi hori are gehiago la-

rriagotu da egungo testuinguru ekonomiko eta sozial konplexuaren eraginez. Hala, erakundeak aldarrikatzen du fakultateetan ematen den hezkuntza eta herrialde osoko Ekonomia ikasgaia eraldatu egin behar direla. Elkarte horren esanetan, Ekonomia ikasgaiaren azterketa- eta kritika-gaitasuna galdu izanak sustrai sakonak ditu, ekonomista batzuek egindako ikerketen finantzaketaren jatorriak sortutako interes-gatazkak baino are sakonagoak; izan ere egoera hori errealitatearekin zerikusi gutxi duten ereduak sortzeko teoria neoklasikoak erabiltzearen ondorio zuzena da. Eredu horietan nagusi dira ekonomia-prozesuen azalpena eta ezagutzari buruzko iragarpenak.

Elkarte horrek eskatzen dituen aldaketek hiru ardatz nagusi hauek dituzte:

- 1) Ikasleei oinarrizko prestakuntza ematea ekonomia-errealitatea hobeto aztertzeke gai izan daitezke; horretarako, ikasleen prestakuntzarako gakoak diren ikasgaiak ezarri behar dira.
- 2) Ekonomia-teoriak kritikoki ikastea, dogmatismotik urruntzeke eta Ekonomiari izaera soziala itzultzeke.
- 3) Ikasketa-planak egokitzea, ikasleek beharrezko tresnak izan ditzaten gizartearen eta ekonomia-errealitatearen arteko gertakarien ikuspegi propioa izateke gai izateke.

Ikasgaiaren edukiei dagokienez, egokia litzateke ekonomia-teoria guztiak irakasteko eta lantzeko aukera ematea; horrela, ez ginateke harrapatuta

⁹ <https://twitter.com/aeueam>

egongo neoklasizismoaren ikuspegi bakarrean edo bere funtziorik progresistenean: neokeynesianismoan. Teoria guztien eta ikasketa-eskola guztien (marxista, post-keynesiarra, instituzionalista, post-autista, eboluzionista edo austriarra) ikasketa kritikoa eta laburra eginez bakarrik izango da posible ekonomiaren errealitatea sakon aztertzea, bai eta sor daitezkeen ekonomia-arazoak aurreikusteko eta horientzat konponbideak proposatzeko gaitasuna hobetzea ere.

Eduki guztiak ikusteko denbora mugatua kontuan hartuta, jardunaldiak eta mintegiak egin litezke eredu bakarren irakaskuntza osatzeko. Eki-horietan bestelako ereduak aurkez litezke; besteak beste, ekonomia ekologikoa, ekonomia feminista, ekonomia planifikatua, jokabide-ekonomia, desazkundearen ekonomia, ekonomia soziala eta kooperatibismoa (edo autogestioa). Komenigarria eta aberasgarria izango litzateke mintegi horiek hainbat diziplina aintzat hartuz ematea, hau da, beste gizarte-zientzia eta politika-zientzietako adituen laguntzarekin.

Hau proposatzen dugu prestakuntzaren edukie dagokionez, batez ere ekonomiarekin eta enpresen antolakuntzarekin zerikusia duten ikasgaietan, baina baita gainerako guztietan ere; izan ere, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak diziplina anitzi eragiten die (psikologia, zuzenbidea, ekonomia, enpresa, pedagogia...):

- Enpresek eta, batez ere, multinazionalak, gizartearen eta ingurumenean duten eragina aztertzea, eta enpresen gizarte-erantzukizuna testuinguru horretan aurkeztea, giza eskubideen ikuspuntutik.

- Herritarrek munduko ekonomia-sisteman duten erantzukizuna azalratzea eta alternatibak aurkeztea; horrela, denok eragin ahalko dugu aldaketa ekonomia- eta gizarte-egituretan, tokian tokikotik maila globalera. Adibide zehatz gisa, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparrua ezagutaraziko dugu; izan ere, ekonomia horrek dituen printzipio eta balioak direla eta, zuzenean egiten dio ekarpena tokiko giza garapenari, giza gaitasunak handitzen baititu, hala norbanakoaren mailan nola maila kolektiboan.

- Bereziki garrantzitsua da ekonomiaren arloko ekimenak kudeatzeari buruzko hainbat ikuspegi txertatzea, bai eta enpresak antolatzeako eta bertan parte-hartzeko ereduak buruzko ikuspegiak ere.

- Erreferentzia egitea finantza-arloko erantzukizunari eta banku etikoen eredu eraldatzaileak aurkeztea; izan ere, banku horiek arduratsuek dira berez, gardentasun osoaren alde eta gizarte-errespetatzen duten inbertsio-tresnen alde apustu egiten baitute.

- Kontsumo-gizarteari buruz hausnartzea, eta publizitateak eta marketinak giza balioen erakuntzan betetzen duten paperari buruzko gogoeta egitea. Kontsumo-ereduak gizartearen eta ingurumenean dituen ondorioak aztertzea, eta kontsumo arduratsua, kontzientea eta kritikoa aurkeztea gizartearen eta ekonomiaren errealitatea eraldatzen lagun dezakeen proposamen gisa.

Euskal unibertsitateetan, hainbat gradutarako ikasgai partekatuak edo zeharkakoak daude, edo edukiak partekatzen dituzte, etikaren, giza eskubideen eta balioen hezkuntzaren arloetan. Horrez gain, gizarte- eta ekonomia-eredua ikuspegi kritiko batetik aztertzen duten hautazko ikasgaiak ere badaude. Ikasgai horietan Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren inguruko hausnarketak eta edukiak txertatzea koherentea eta aberasgarria izango litzateke.

Irakasleek elkarlanerako harreman egonkorak sor litzakete gizarteko hainbat kolektiboekin; horrela, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa programan txertatu ahal izango litzateke mintegien bitartez, edo elkarrekin zuzen litzakete Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari buruzko lanak. Beste bide bat da ikasleek, esperientzia praktikotik abiatuta, beste era bateko ezagutzak barnera ditzaten eta, hala, ikuspegi kritikoagoa gara dezaten.

Eduki horiek txertatzea, askotan, irakasleen edo sailen nahiaren eta konpromisoaren arabera izan ohi da; hala ere, unibertsitateak duen gizarte-erantzukizunari eta gizarte-funtzioari erantzuteko, beharrezkoa litzateke aipatu ditugun eduki

horiek euskal unibertsitateetako programa akademikoetan txertatzea eta duten garrantzia aitortzea.

Horrez gain, aukera egongo litzateke elkarlanerako esparruak eta prozesuak bilatzeko, ikasleek GALak (Gradu Amaierako Lanak) eta MALak (Master Amaierako Lanak) Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioarekin zerikusia duten edukien gainean egin ditzaten, edo Ekonomia Bidezko eta Solidarioako erakundeek eta elkarteek dituzten beharri-zen praktikoei, estrategikoei, sistematizaziozkoiei edo ikerketazkoiei erantzuna emateko.

Moduluetako Diziplinarteko Jarduerak, irakasle talde osoak proposatutako jarduera gisa, aukera ematen dute hainbat pedagogia-metodologia erabiltzeko, kooperazioa, elkarlana eta hausnarketa-ekintza oinarri dituen ikuspegi batetik.

Halaber, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa preskakuntza osagarrian sar daiteke, hau da, eskola-orduetatik kanpo, eta ikasleei horren truke aukera askeko kredituak emango zaizkie. Hala, ikasleei aukera emango zaie kredituen truke boluntariora-lanak egiteko, elkarlanean aritzeko, prestakuntza alternatiboa jasotzeko... Guztia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren alorrean. Aukera hori ikasleen eskubidea da; alabaina, gehiago garatu behar da, ikusgarritasuna eman behar zaio eta jarraipena egin behar da, unibertsitatearen eta Ekonomiako Bidezko eta Solidarioako kolektiboen arteko harreman aberasgarria ahalbidetzeko.

Hainbat unibertsitatek metodo eta pedagogia-ikuspuntu kooperatiboak garatu dituzte. Horien helburua da Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa gauzatzen duten enpresen eta kolektiboen beharri-zen erantzun bat ematea; horretarako, ikasleei esperientzia eta ezagutza praktikoak eskaintzen zaizkie ekonomiaren esparru alternatibo horri buruz. Bestalde, edozein ikasgaitako notaren ehuneko bat esleitu ahalko litzaiok e ikasleek benetako beharri-zenak dituzten kolektiboak bilatzeari eta beharri-zen horientzako egitekoak, jarduerak edo ikaskuntza-zerbitzu¹⁰ prozesuak aplikatzeari; prozesu horietan parte hartzen duten ikasleek ikasgaiari buruzko ezagutza sako-

nagoak lortzen dituzte, eta, horrez gain, gizarte-erantzukizuna aplikatzen dute.

Nolanahi ere, unibertsitatean ekonomiari buruzko edukiak ikuspegi alternatibo batetik txertatu ahal izateko, funtsezkoa da garrantzi handiagoa ematea kooperazioan oinarritutako pedagogia-ikuspegiei, taldeko hausnarketa- eta ikasketa prozesuei, hausnarketa-ekintza ikuspuntuari, herri-hezkuntzaren ikuspegiari eta abarrei. Horrez gain, aintzat hartu beharko lirateke irakasleek pedagogiaren arloko berrikuntzak egiteko dituzten denbora- eta baliabide-mugak. Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak giza, antolakuntza- eta ekonomia-harremanak eraldatu nahi ditu, funtsean; hori dela eta, ez litzateke egokia izango eduki horiek txertatzerakoan metodologia zuzentzaileak, parte-hartzerik gabekoak, lehiakortasuna sustatzen dutenak edo teoriarik soilik oinarritzen direnak erabiltzea, metodologia horiek egungo gizarte- eta ekonomia-ereduan nagusi diren indibidualtasuna eta lehiakortasuna sustatzen baitituzte.

6.1.2) Ikerketa.

Unibertsitateko irakasleek, normalean, ikerketa akademikoan ere jardun behar dute, master- eta doktorego-mailan eskolak eman nahi badituzte, bai eta beren garapen profesionalean eta soldatan eragin zuzena duten seiurtekoak pilotatzeko ere (ANECA¹¹ - Akreditazioa eta Kalitatea Ebaluatze Agentzia Nazionala). Alabaina, ikerketari buruzko argitalpen guztiek ez dute puntu kopuru berdina balio, eta aldizkari akademiko batzuek pisu askoz handiagoa dute. Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari buruzko edukiak sarriagotan argitaratzen dituzten aldizkari alternatiboek ordea, meritu akademiko bezala bakarrik hartzen dira; ondorioz, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari buruzko artikulua argitaratzeko, ikertzaile horiek norberaren konpromisoan eta sentsibilizazioan aurkitzen dute motibazioa.

Elkarrizketetan parte hartu duten irakasleen iritziz, askotan, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko ikerketak bigarren mailakotzat jotzen dira, edo ez zaie ekonomia joera nagusia-

¹⁰ Aurrez aipatu dira.

¹¹ <http://www.aneca.es/>

ren arloko ikerketei besteko garrantzirik ematen. Alabaina, ez litzateke ikerketa-ildo marjinalizat hartu beharko; izan ere, esate baterako, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa EAEko (Euskal Autonomia Erkidegoko) BPGaren % 10 da, Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiko (OVES-GEEB)¹² iturrien arabera.

Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren mugimenduari buruz egin litezkeen ikerketak funtsezkoak dira ekonomia hori ezagutarazteko eta ezaugarri horiek dituzten ekonomia-ekimenean lanean ari diren kolektiboen eta pertsonen aintzatespenean aurrerapausoak emateko. Horrez gain, ikerketari esker ikuspegi zientifiko batetik erakuts litezke ekonomia-korrante alternatibo eta inklusibo horren eraginak, abantailak eta ezaugarriak. Ekonomia Sozial eta Solidarioa zer sektoretara iristen den ere kontuan hartu beharra dago: bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak, mendekotasun-egoeran daudenak... Arlo horretako ikerketa bidera liteke Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa osatzen duten kolektiboen, enpresen eta pertsonen beharrian praktikoei eta estrategikoei (REASen 2014-2018ko Plan Estrategikoa)¹³ erantzutera. Horrez gain, aintzatespena, pisu akademikoa eta argumentuak emango lizkioke politikaren arloari esku hartzeko Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatze aldera, unibertsitatean, administrazio publikoan eta gizartean. Ildo horretan, garrantzi handia du intzidentzia politikoak, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren aldeko apustua egiten duten ikerketa-taldeek aintzatespen handiagoa izan dezaten eta Eusko Jaurlaritzaren lehen-tasuneko ikerketa-ildoak (ikus Gizarte Ekonomiaren Liburu Zuria¹⁴) defini daitezten; hala, ekonomia-korrante hori indartu egingo da.

Ezinbestekoa da, halaber, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren alde lan egiten duten kolektiboen tokian-tokian edo maila globalean egiten duten eta akademikoa ez den ikerketa-ekintzari balioa ematea; izan ere, egun ez zaio ikerketa akademikoari besteko garrantzirik ematen, ez

behintzat, ofizialki. Halaber, ikerketa-prozesuetan unibertsitatearen babesa izatea funtsezkoa litzateke esperientziak eta ikaskuntzak sistematizatzeko eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa egiten duten kolektiboen lanari ikusgarritasuna emateko; izan ere, kolektibo horiek ez dute prozesu horietarako denborarik edo baliabiderik izaten. Ildo horretan, interesgarria litzateke Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa gauzatzen duten kolektiboen eta unibertsitatearen (edo unibertsitateen) arteko batzordeak edo aliantzak osatzeko aukera sakonago aztertzea ikerketa akademikoko proiektuetarako, bai eta ikerketatik eta sistematizaziotik eratorritako ezagutzak bi norabidetan transmititzeko ere. Bukatzeko, kontuan hartzekoak dira Unibertsitate Hedapena bezalako esparruek eskaintzen dituzten aukerak unibertsitatearekin eta komunitatearekin/inguruarekin elkarlanean ikerketa-prozesuak gauzatzeko/artikulatzeko.

6.1.3) Praktikak.

Sistemaren krisia bizitzen ari gara, eta horrek argi erakusten du presazko beharra dugula benetako alternatibak behetik planteatzeko, alternatiba horiek entzunarazteko eta gizakia erabakiak hartzeko erdigunean kokatzeko. Mundu mailako finantza-krisialdiaren ondorioek argi erakusten dute Iparraldeko gizarteak egituratu dituen (eta Hegoalde Globalean ezarrarazi nahi izan den) sistema neoliberala ez dela bideragarria giza garapen iraunkorra¹⁵ aldarrikatzen duen korrante batean ere. Ez da ekonomikoki bideragarria, ez da sozialki bidezkoa eta ez du ingurumena errespetatzen.

Ezinbestekoa da unibertsitateko ikasleek munduko ekonomia-sisteman duten erantzukizuna eta intzidentzia-gaitasuna azaleratzea eta alternatibak aurkeztea; horrela, denok eragin ahalko dugu aldaketa ekonomia- eta gizarte-egituretan, tokian tokikotik maila globalera. Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak, bere printzipioak eta balioak direla eta, ekarpen zuzena egiten dio giza garapen iraunkorrari; izan ere, gizakien gaitasunak, hala norberarenak nola taldearenak, handiagotzen ditu eta, aldi berean, baliabideen

12 <http://www.oves-geeb.com/es/observatorio>

13 http://www.economiasolidaria.org/noticias/asamblea_2014_reas_euskadi

14 http://www.economiasolidaria.org/documentos/libro_blanco_de_la_economia_social

15 http://portalsostenibilidad.upc.edu/detall_01.php?id=208&numapartat=0

banaketa bidezkoagoa aldarrikatzen duen gizarte- eta ekonomia eredu bat sustatzen du.

Zehazki, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren ekimenek eta enpresek unibertsitateko ikasleei ezagutza-erperientzia zuzenak eskaini diezazkiekete, espazio eta prozesu horietan parte hartzeko aukera emanez. Izan ere, praktikek gero eta garrantzi handiago dute Euskal Herriko Unibertsitateko graduatan eta masterretan, ikasleei aukera ematen baitiete bertatik bertara ezagutzeko eta bizitzeko lan-esparru posibleak, bai eta lan-erperientzia lortzeko aukera ere.


Hori dela eta, estrategikoki garrantzitsua da unibertsitatean eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa aplikatzen duten enpresen arteko praktika-hitzarmen egonkorak eratzea. Horrez gain, praktiken eskariak eta eskaintzak bilduko dituen datu-base bat sortu beharko litzateke, gizarte-ko eta ekonomiako esparru hori ikasleentzako aukera ikusgarria eta erakargarria izan dadin.

Horri ekin aurretik, funtsezkoa da ikasleak sentibilizatzea, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren mugimendua eta bere elkarrekin ezagutu ditzaten bai lurralde mailan eta baita maila globalean ere. Ezinbestekoa da azpimarratzea posible dela ikasleek ibilbide profesional aberasgarria gauzatzea Ekonomia Sozial eta Solidarioa aplikatzen duten enpresetan, eta soldatua on baten truke, gainera.

6.1.4) Mobilizazioa, boluntarioria eta sentsibilizazioa campusean.

Euskal Herriko unibertsitateko campusetan, ugari dira egungo gizarte- eta ekonomia sistemarekiko diskurtso kritikoa duten ikasleen zein gizartearen mobilizazio mugimendu eta -kolektiboak. Alabaina, orain arte ez dira oso ugariak izan mugimendu horien eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren eragileen arteko artikulazio-erperientzia egonkor eta estrategikoak eta gehienbat mugimendu horiek puntualak izan dira.

Hori ikusirik, positiboa izango litzateke artikulazio- eta lankidetzaren erperientzia hori sustatzea,



parte-hartzerako gune mistoen bitartez, aukera handiak eskaintzen baititu; (esaterako, ikasleen mugimendu eta kolektiboekin eta Ekonomia Bidezko eta Solidarioaren gizarte-kolektiboekin, baita prozesu horietan inplikaturako irakasleekin ere).

Parte-hartzerako joerak eta mugak kontuan hartuz, inplikatzeko hainbat aukera eta maila susta litezke, hala aurrez aurre nola sare sozialen bitartez.

Unibertsitateko boluntarioria unibertsitateko eragileek eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko kolektiboekin koordinatu dezakete; horren bitartez, ikasleek aukera izango dute hainbat ekimenetan parte hartzeko: merkatu soziala, banku etikoak, etorkinei laguntza emateko erperientziak, emakumeen kooperatibak, ekoizpen eta kontsumo arduratsuko ekimenak, gizarteratze-programak eta intzidentzia politiko zein sozialeko kanpainak, tokian-tokian zein Europa mailan. Ikasleek kolektibo horien laguntza- eta partaidetza-beharrizetan erantzun dezakete, eta aukera izango dute prozesu motibatzaileetan parte hartzeko, beraien ekarpenak eta lanak duen eragina ikusi ahal izango baitute.

Bukatzeko, ezin ahaztu ditzakegu ikasleek unibertsitatean dituzten eragin- eta erabaki-espazioak: batzordeak, asanbladak... Ikasleak eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko eragileak espazio horietan behar bezala koordinatuko balira, intzidentzia politikorako aukera interresgarriak sortuko lirateke.

7. Genero-ekitatearen ikuspuntua unibertsitatean, Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko

7.1) Ekonomia Solidarioaren eta Ekonomia Feministaren (EkoSolFem) arteko loturak.

- Ekonomia arrunta kritikatzeko dute.
- Ekonomiaren definizioa zalantzan jartzen dute eta ekonomia-eragilearen definizioa kritikatzeko dute.
- Merkatua ez da nahikoa ongizatea sortzeko (etxearen, komunitatearen eta Estatuaren garrantzia).
- Pertsonak eta haien bizi-baldintzak jartzen dituzte erdigunean, eta suntsitu egiten dituzte dikotomia faltsuak.

Bi ikuspegiak oinarri bera dute: **ekonomia arruntaren kritika**. Kritika horretatik abiatuz, ekonomia bidezkoago bat bilatzen dute:

- Ekonomia Feministak (EF) azpimarratzen du ekonomia-pentsamenduaren eskolarik bote-retsuenek defendatzen dituzten hipotesiek eta metodologiek alderdikieriaz jokatzeko dutela generoari dagokionez, eta, ondorioz, kritikoki berrikusi behar direla.
- EFk azpimarratzen du etxeak garrantzi handia duela funtsezko ondasunak eta zerbitzuak emateko (etxeko lanak eta zaintza-lanak); alabaina, hori sistematikoki ahaztu eta isildu da ekonomia-azterketetan. Ilde horretatik, Ekonomia Solidarioak (ES) nabarmentzen du merka-

tua ez dela nahikoa gizarte-ongizatea sortzeko eta kudeatzeko; hala, beste erakunde batzuk ere behar dira, besteak beste etxea, Estatuak eta komunitatea.

- Hala EFk nola ESk hau bilatzen dute: pertsonak eta beren bizi-baldintzak jartzea azterketaren erdigunean, eta lana lotzea gizarteak behar duen ekoizpenari, oinarriko beharrezkoak asebetetzeari eta espeziearen ugalketa hedatuari. Ekonomia-sistema ikusteko eta aztertzeko eredu horiek hautsi egiten dituzte ekonomia arruntaren muga faltsuak, eta ekonomia arruntak oinarri dituen dikotomiak gainditzeko aukera ematen dute (ekoizteko/kontsumitzeko espazioak, produktiboa/ez produktiboa, lanpostu produktiboak/ez produktiboak...)

- EFk azpimarratzen du ekonomia-eragilearen, Homo Economicusaren faltsutasuna. Eragile hori beti da arrazionala, berekoa, independentea, sentimendurik gabea, guztiz burujabea, osasuntsua, ez gazteegia ez zaharregia, zuria eta, noski, beti aktiboa lan-merkatuan; soilik aberastasun ekonomikoan bilatzen du ongizate pertsonala. ESk, bere aldetik, kritikatu egiten du baita ere Homo Economicus hori esaten duenean jardura ekonomikoetan beste motibazio, zentraltasun eta asmo batzuk ere badaudela, norberaren interesaren gainetik, hori ez baita norbanakoaren jarreraren printzipio

bakarra.

- Bi ikuspegi horiek ezbaian jartzen dute ekonomiaren definizioa (Houtart: *"gizaki guztion bizitza fisiko eta kulturalaren oinarri materialak bermatzea da ekonomiaren berezko eginkizuna. Bertan, hain zuzen ere, harreman sozialek berdintasunezkoak izan behar dute, jarduera kolektiboak modu demokratikoan garatu behar dira, kultura aniztasuna kultura artekotasunaren oinarria dela aitortu beharra dago eta espiritualtasunak irekia bezain anitza izan behar du. Horrek guztiak, gainera, gizakien eta naturaren arteko sinbiosian egon behar du oinarrituta"*).

7.2) Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioak genero-ekitatearen ikuspegia barne hartzeko gomen-dioak.

Genero-ikuspegia txertatzeari buruz ari garenean, hau esan nahi dugu: generoen arteko harremanak eta genero baten eta besteen arteko berdintasunik eza kontuan hartzea; hori ikusirik, hartzen ditugun neurrien helburuak izan beharko du pertsona bakoitzak dituen behar espezifikoak aintzat hartzea. Genero-ikuspegiaren oinarrian uste hau dago: generoen arteko berdintasunik eza gizarteko esparru guztietara hedatu den fenomeno bat da. Genero ikuspegia ezartzearen ondorioetako bat da kontzeptu hori zeharkako bilakatzea.

Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunei aurre egiteak esan nahi du gure antolatze eta egituratzeko moduak barrutik aldatu behar direla, eta aldaketa horiek gure ekintzetan islatuko dira. Proposamen politiko honek generoen arteko harreman bidezkoak eta ekitatiboak eraikitzearen aldeko konpromisoa eskatzen du; horretarako, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen baldintzen, egoeren eta beharren arteko aldeak aintzat hartzea. Kasu honetan, esaten genuen bezala, gure diskurtsoak eta metodologiak aldatu beharko ditugu.

Hona hemen **diskurtsoari** buruzko zenbait gako:

- Egungo ekonomia-eredua aztertzean, garrantzitsua da ekonomia feministaren aztergai izan diren alderdiak berreskuratzea. Hauek, esaterako: Bizitzaren iraunkortasuna. Bai eko-

nomia bai haren tresnak eta ereduak gizartetik at mantendu dira, independenteak izango balira bezala. Hala, ekonomiak uko egin die pertsonen bizi-baldintzen inguruko erantzukizun guztiei. Era horretan eraiki den gizarte- eta ekonomia-eredua zaintzarik behar ez duten eta beste batzuk zaindu behar ez dituzten edo bizitza iraunarazi behar ez duten pertsonentzako bakarrik dago pentsatuta. Ekonomia feministak hau proposatzen du: ekonomiak aztertu beharko luke nola hornitu bizitzaren iraunkortasuna; eta garrantzia ematen dio bizitzari eusteari. "Bizitzaren iraunkortasuna apustu politikoa da eta, are gehiago, premiazko deia, pertsonak eta planetak gure jardunaren erdigunean jarriko dituen eredu bat garatzeko; eredu horrek aukera emango digu gure eskubideak eta etorkizuneko belaunaldien eskubideak erabiltzeko, eta zaintzaren etikan oinarrituta dago. Globalizazio kapitalistak bilatzen duen homogeneousazioan eta hierarkizazioan ez bezala, eredu hori ez da jarduteko marko itxi bat. Pertsona guztientzako tokia duen bidezko gizarte bat (horri "bizimodu ona" esan geniezaiotke) sortu nahi dugu. Horretarako, Andeetatik datorkigun kontzeptu horren berrikuspen eta egokitzapen kritikoa egin beharko genuke; kontzeptu hori, izan ere, gizartea osatzen duten kide guztien esperientzien, nahien eta beharren aniztasuna entzuten duen eta gizarte osoak adostu duen ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-egitura bat izan behar da.

- Horrez gain, lanaren kontzeptua ere landu beharra dago. Dakigunez, lan produktiboak eta erreproduktiboak daude. Tradizioz, lan erreproduktiboak (etxeko lanak eta zaintza-lanak) ezkutatu egin dira, ez zaie merezi duten balioa eman eta emakumeen esku utzi dira. Lan guztiei ez zaie balio bera ematen (ez gizartean ez ekonomian), eta hori argi ikusten da lanaren sexuaren araberako banaketan; banaketa horrek segregazioa eragiten du, hala bertikala (gizon gehiago daude zuzendaritza postuetan), nola horizontala (gizon gehiago daude aintzatespen eta soldata handiagoa duten lanbideetan). Bizitzaren iraunkortasunari loturiko lan gehienak emakumeen esku utzi dira, gizartean balio gutxiago dute eta soldata txikiagoa eskaintzen dute.

- Halaber, ekonomiari loturiko kontzeptuen azterketa kritikoa egin behar da, era argian eta orekatuan erabiltzeko: etekina, lehia, baliabideak, produktibitatea... Tradizioz logika kapitalistarekin loturiko kontzeptuen hausnarketa feminista egin beharko genuke, kontzeptu horiek nola ulertzen ditugun ikusteko, gure egin nahi ditugun ikusteko, eta esanahi berria eman nahi diegun edo beste batzuk erabili nahi ditugun erabakitzeko. Esate baterako, zer esan nahi du, guretzat, etekinak emateak? Gure bizitzako beharrianak estaltzen dituen hori al da? Beste esfera batzuei tokia egiten dien hori al da? Zeri da guretzat "nahikoa" irabaztea?...

- Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren esparruan alternatibak proposatzerakoan, esaten dugu alternatiba horien izaera eraldatzailea, besteak beste, genero harremanen esparru berria eraikitzeari buruzko ardura eta konpromisoa izatearen arabera izango dela, eta esparru berri horrek emakumeei dagozkien eskubideak eta aukerak itzuli beharko dizkietela. Aintzat hartu behar da alternatiba horietako asko "trantsizio bidean dauden esperientziak" direla; horregatik, prozesu horretan dauden esperientziak azalatu eta aintzat hartu behar dira, indarguneak, ahalguneak eta erronkak onartuz.

Metodologiei dagokienez:

- Edozein ekonomia ekimenen abiapuntua diagnostiko bat egitea izan behar da, emakumeek tokiko ekonomian duten lekua eta egoera zein den jakiteko. Diagnostiko hori egiteko, beren gizarte-, ekonomia- eta politika egoerari buruzko datuak hartuko dira kontuan. Oinarri horretatik abiatuta, ekonomia-esperientzia berriak identifikatu ahal izango dira, eta alternatiba horiek gizartean eta ekonomian duten eragina, oro har, eta emakumeengan dutena, zehazki, aztertu ahal izango da. Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzeko hainbat informazio-iturri daude: indarrean dagoen ekonomia-ereduaren edo ekonomia alternatiboaren datu ekonomikoak, EUSTATen datu-basea, udal-planen sexuaren arabera datuak, gure interesekoak diren gizarteko gaiekin lan egiten duten tokian tokiko elkarten datu-baseak,

REAS – Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen datuak eta txostenak. *Oro har, sexuaren arabera bereizitako datu eta informazio gehiago behar da. Erreferentziatzat har daitezke Emakunderen txostenak, Nafarroako Berdintasunerako Institutua...*

- Tresna eta metodologia egokituak sortzea ekonomiaren arloko ekimenek eta politikek emakumeengan duten eragina eta beharrianak identifikatzeko.

- Unibertsitate mailan, beharrezkoa da ekonomiari eta generoari buruzko diagnostikoak eta ikerketak egitea, Gezki, ikerkuntzan intzidentzia-maila handiagoa lortzea eta sexuaren arabera bereizitako datuak sistematizatzea. Emakumeek ekonomiaren arloan dituzten beharrianak estrategikoak eta praktikoak txertatzea GAL edo MALetako ikerkuntza-ildo gisa, eta gero informazio hori prestakuntza-prozesuetan erabiltzea. Gutxienekoen araudia idaztea ikerketek, GALEk eta MALEk datuak sexuaren arabera bereiz ditzaten eta, gutxienez, zeharka egin ezin badaiteke, atal bat izan dezaten ikertzen ari diren hipotesia generoaren ikuspuntutik aztertzeko.

- Genero-ikuspegia txertatzeak, irakasleekin lan egitea eskatzen du; izan ere, oso zaila da ikuspegi hori mintegietan edo aldi behingo saioetan lantzea, azterketa etengabea izan behar delako. Esku hartzea irakasleen berritze-planetan genero-ikuspegia txertatzen joateko. Eta, gutxienez, hausnarketa abiatzeko.

Hona hemen genero-ikuspegiaren arloan landu beharreko beste puntu garrantzitsu batzuk:

- Kontsumo arduratsuen gaia jorratzea, kontuan hartuz emakumeak direla bizitzaren ugalketaren arduradunak.

- Aintzat hartzea baserriko eta hiriko emakumeen errealitateak oso desberdinak direla. Garrantzitsua izan liteke baserriko testuinguruari buruzko eztabaida bat izatea, eta eztabaida horretarako erreferentziatzko datuak sexuaren arabera bereiztea. Horrez gain, metodologia egokia erabili behar da talde hori lantzeko, desberdintasunen gainetik.

- Autogestioa eta bere indar eraldatzailea ere elementu garrantzitsua da ahalduntzeko

prozesuak eta espazioak sustatzeko, batez ere generoen arteko berdintasunik ezaren testuinguruan.

- Emakumeen autonomia ekonomikoak ere funtsezko elementua da mendekotasun-prozesuak hausteko. Finantza Solidarioen garrantzia nabarmendu nahi dugu; izan ere, alternatibak sortzen dituzte, ekoizle txikiei (batez ere, emakumeei) kreditua lortzen laguntzeko. Prozesu horiek, pertsonen bestela lortu ezin-gotuzketen funtsak lortzeko aukera emateaz gain, finantzen arloko hezkuntza-prozesu sendoa sustatzen dute.

7.3) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko unibertsitateko mobilizazioetan, praktikan, ikerketan eta prestakuntzan txertatzeko erronkak eta gakoak.

7.3.1) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezko eta Solidarioaren arloko unibertsitateko prestakuntzan.

Erronkak:

- Ikasleek, oro har, ezer gutxi jakitea feminismoari buruz eta haien inguruan nagusi den gizarte- eta ekonomia-testuinguruari eta horren alternatibei buruz, bai eta nagusi den ekonomia-ereduak gizon eta emakumeengan duen eraginari buruz ere.
- Egungo ekonomia-ereduak gazteengan duen eragina dela eta, gazteak irekiago daude proposamen kritikoei eta alternatibei.
- Denbora mugatua hausnarketa kritikoa egiteko eta genero-ikuspegia ikasgai osoan zeharka landu nahi duten prozesuak garatzeko.
- Ekonomian generoari buruzko azterketa egiteko balioko diguten datu bereziak lortzeko moduari buruzko ezjakintasuna. Ahalegin handiago egin behar da bilaketan. Ekonomiako hainbat sektoretako datuak sexuaren arabera bereizten dituen datu-base bat eta mapaketa bat egin behar da, eta datu horien iturriak bildu behar dira.
- Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari buruzko materialak eta artikulu akademikoak egokitu egin behar dira ikasgelako pedagogia-materialera edo unitate didaktikoetara.
- Metodologia eta dinamika pedagogiko eraldatzaileak sortu behar dira genero ikuspegia aintzat

hartzen duen Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa irakasteko.

Gakoak:

Egungo sistema kapitalista eta patriarkala salatzen den ideia nagusi batzuk, eta alternatibak proposatzea.

- Ekonomia-korronteen ikuspegi androzentrikoa.
- Eraikuntza teoriko dikotomikoa eta hierarkikoa (kapitala/bizitza; ekonomia/ekonomiarik eza; lana/lanik eza; monetarizatua/monetariztu gabea; publikoa/pribatua; merkatua/natura).
- Lanaren kontzeptua: merkatua erdigunean, sexuaren arabera lanen banaketa, etxeko lanak eta zaintza-lanak ikusezin bilakatzea.
- Sistema kapitalistari eusteko sistema patriarkalaren beharra.
- Ekonomia-ereduaren eragina emakumeen bizimoduan: Pobreziaren feminizazioa; lan prekarioa; segregazio horizontala eta bertikala; soldaten arteko aldea; kreditu desberdintasuna; lan ikusezina, doakoa eta gutxi baloratua: zaintza-lanak, etxeko lanak eta komunitateko lanak; nazioarteko zaintza-kateak (ikuspegi globala eta ekonomikoa, migrazioa...); indarkeria matxista; emakumeen eskubideak behin eta berriz urratzea.

Ekonomia-alternatiba feministak:

- Bizitzaren iraunkortasuna: Bizitza erdigunean jartzea. Ekomenetasuna eta elkarrekiko menetasuna. Ekonomia kapitalistaren printzipioak ekonomia feministaren printzipioekin alderatzea, eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren printzipioak ekonomia feministarekin alderatzea. Partekatzen dituzten alderdiak, kontraesanak, elkar-osatzeak, elkarlan/artikulazio handiagoa elkarrekin eta kolektibo feministekin, ekonomiako edukiak genero-ikuspegitik garatzeko.

7.3.2) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezko eta Solidarioaren arloko unibertsitateko praktikan.

Erronkak:

- Ikasleek praktikak egingo dituzten erakundeetan eguneroko lanean genero ikuspegia aintzat hartzea edo ikuspegi feminista izatea: Ikasleentzako praktikak eskaintzen dituzten Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko hainbat erakun-

liezaiekete.

- Bibliografiak, irakurketa-materiala eta abar ikerketa-masterretako kideen eskura jartzea, master horiek generoari buruzko edukiak edo generoa aztertzekeo tresnak lantzen badituzte. Horrez gain, gomendatzea lanetako aipuen portzentaje jakin bat idazle feministen lanei buruzkoak izatea.
- Ekonomiaren arloko unibertsitateko irakasle eta ikertzaile feministak identifikatzea eta haiekin elkarlanean jardutea.

7.3.4) Genero-ekitatearen ikuspegia Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioari buruzko unibertsitateko hezkuntza ez-formalean, sentsibilizazioan, bolutarriotzan eta mobilizazioan.

Erronkak:

- Unibertsitateko elkarteak mapatzea, bai eta campus barruko militantziak eta mobilizazio prozesuak ere. Zer egoeratan dauden aztertzea eta eredu horizontalago eta parte-hartzaileagoak sortzen ahalegintzea, nahiz eta erreferentziako mugimendu batzuek eraldaketa horixe bilatzen duten.
- Ekonomia kritikoari buruzko ikasle mugimenduan, ekonomia feministari buruzko erreferentzia gehiago egitea edo genero-azterketa sustatzea.

Gakoak:

- Irakasleen eta campuseko gizarte-kolektibo kritikoen arteko aliantzak eta artikulazioak eratzea, baita tokian tokiko emakume etxeekin eta kolektibo feministekin ere, genero-ikuspegia unibertsitate-elkartegintzan txertatzeko. Emakume-etxeetako baliabideak ikasleen mobilizazio-prozesuetara ekartzea.
- Mobilizazioak edo hezkuntza ez-formalak ekintza sinbolikora jotzeko gonbidapena egin dezala campusean, ikasitakoa praktikara eraman ahal izateko. Esate baterako, prestakuntzen metodologian, prozesua ixteko, unibertsitatean ekintza bat martxan jartzea. Ekintza horrek prestakuntzan ikasitakoa bilduko du edo ekonomia-aren arloan emakumeen, gizonen eta pertsona intersexualen arteko desberdintasunak azalertuko ditu.

olidarioa sustatzeko unean genero-ekitatearen ikuspuntua txertatzeko gomendioak.

- Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren edukiak genero-ikuspegitik landu beharko liraterke; horretarako, Ekonomia Feministak egindako ekarpenak txertatu beharko liraterke planteamendu horretan. Prestakuntza-prozesu gehienetan bezala, lehenengo fasean genero-ekitateari buruzko edukiak txertatuko dira prestakuntza-aren atal zehatz batean. Prozesu osoaren ikuspegiari dagokionez, genero-ekitatea espezifikoki lantzeaz gain, zeharka ere landu beharko da. Praktikan, aurrerago ikusiko dugunez, horrek esan nahi du berriro aztertu beharko ditugula gure diskurtsoak eta erabiltzen ditugun metodologiak.

- Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloko kolektiboekin lankidetzan jarduten duten irakasleei laguntza eta prestakuntza ematea, beren eskoletan genero ekitatea txerta dezaten. Oro har, irakasleek gutxi dakite gai honen inguruan. Ez dute prestakuntza zehatzik jaso. Hori dela eta, ohikoa da mesfidantzak, oztopoak eta mugak agertzea irakasleei zuzenduriko prestakuntza prozesuak aurkezten direnean. Garrantzitsua da zehazki irakasleei zuzenduriko lan-metodologia bat diseinatzea; hala, irakasleek progresiboki txertatu ahal izango dute beraien irakasgaietan, bai zeharka bai modu espezifikotan. Epe luzerako helburu gisa, beharrezkoa litzateke prestakuntza irakasle guztiei ematea.

- Ildo horretan, interesgarria litzateke kontuan hartzea erakundeetako erreferentzia-markoak, esaterako UPV/EHUren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2014-2017). Dokumentu horretan lehentasuna ematen zaio genero-ikuspegia txertatzeari edukien sorreran eta transmisioan, emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeari unibertsitateko esparru guztietan, eta unibertsitateak genero-berdintasunarekin duen konpromisoa ikusarazteari. Planaren ardatz nagusia genero-zeharkakotasuna da: irakas-kuntzan; ikerkuntzan, laneko eta giza harremanetan, eta unibertsitatean eta bere gizarte-proiektuan, erakunde publiko den heinean.

7.4) Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoa eta So-

- Elkarlana eta aliantzak beren-beregi gai hau lantzen duten erakundeetako batzordeekin, bulegoekin, zuzendaritzekin eta sailekin, esaterako, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzarekin, bai eta eduki solidarioak, kritikoak, alternatiboak zein sozialak sustatzen dituen beste edozeinekin ere.

- Unibertsitate barruko prozesuak ahalbidetzea eta babestea, generoari buruzko minorrak/espezialitateak edo edukiak erakundean txertatzeko eta ofizial egiteko.

- Denborak eta baliabideek ahalbidetzen duten neurrian, irakasleen eta ikasleen ahalduztze-prozesu pertsonalak sustatzea, generoa aztertzeke tresnen transmisio hutsetik harago. Horretarako, ezinbestekoa da prestakuntza jasotzen duten irakasleek eta ikasleek sentitzea generoaren araberrako desberdintasunak errotik kentzeko bidean aurrera egiteko beharra kontu pertsonala dela.

- Kredituak esleitzea genero-ekitateko ezagutzen ziurtagiri gisa. Garrantzitsua da interesaren ebaluazioa egitea, etengabeko hobekuntza bermatzeko.

- Harreman zuzena eta hurbila **irakasleekin**:

- } Irakasleekin harremanak hobetzeko ahalginak egitea, aliantzak sortzeko, beharri-zanak ezagutzeko eta lan egiteko moduen berri izateko.

- } Lan-estrategia bat diseinatzea, hasiera batean abstraktua dirudien eta mesfidantza pitz dezakeen gai honetara hurbiltzeko. Sentsibilizaziotik hastea eta irakasleei prestakuntza ematea, norabide horretan aurrera eginez prozesuaren ikuspegitik. Ildo horretan, interesgarria izan daiteke oinarrizko lerro bat irekitzea, hasierako egoerari erreferentzia egiteko, norabide zuzenean eman nahi diren pausuak zehazteko, ebaluazio estrategia definitzeko eta prozesua bukatu ondoren jarraipena nola egin proposatzeko.

- } Irakasleei zuzenduriko prestakuntza egokitzea, aurretiko ezagutza-mailara eta ka-

suan kasuko titulaziora, irakaskuntzan genero ikuspegia txertatzen laguntzeko. Adibidez: irakaslearen eskolen egunerokoa aztertzea (edukiak eta metodologia), eta genero-ikuspegia nola txerta daitekeen aztertzea; horretarako, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planean irakaskuntza-zeharkakotasunaren atalean ageri diren ekintzak har daitezke erreferentzia bezala. Plan horrek, esterako, emakumeek ezagutzen sorreran zer ekarpen egin dituzten azaltzeko, datuak sexuaren arabera sailkatuta ematea eta hizkuntza sexistarik ez erabiltzea proposatzen du.

- Ikasleen asoziazionismoa eta militantzia identifikatzea mugimendu sozialetan eta/edo feministetan, eta aliantzak sortzea. Boluntariora-prozesuak sustatzea, hala aurrez aurrekoak nola sare sozialen bidezkoak; horrek, geroago, hausnarketa kritiko sakonagoa ahalbidetu dezake gizarteko kolektiboetan, hala feminismoaren arloan nola beste arlo batzuetan. Hausnarketa ahalbidetu dezaketen edo ikasgela barruan abiatu ditugun prestakuntza-prozesuak aberastu ditzaketen espazio biderkatzaileak izan daitezke.

- Prestakuntza jasoko duen taldea ezagutzeko alde aurreko lana egitea.

- } Gaia aurkezteko, ezinbestekoa da taldearen interes-gakoa zein den argi jakitea eta arreta erakarriko duten galderak botatzea edo adibideak ematea.

- } Prestakuntzako jarduera bakoitza hartzaileen beharretara egokitu behar da. Horretarako, inkestak labur bat edo dinamika parte-hartzaile bat egitea komeni da saioari ekin aurretik, prestakuntzaren edukiak prestatzeko eta hartzaileen profilerak egokitzeko. Taldearen alde aurreko ezagutzak, profila, osaera (emakume eta gizon kopurua) adina eta abar identifikatu beharko ditugu. Informazio hori kontuan hartuta, erabiliko dugun metodologia eta aurkeztuko ditugun datuak egokitu ahal izango ditugu, errealitatea zailantzan jartzeko eta hausnarketa bultzatzeko.

8. Kontraste tailerrak: Ekonomiaren irakaskuntza

2015eko uztailaren 9an eta azaroaren 25ean, bi topaketa egin ziren irakasleen, unibertsitateko ikasleen eta gizarte-taldeen parte-hartzearekin. Topaketen izenburua “*La enseñanza de la economía a análisis*” izan zen, eta Bilboko Ekonomisten Elkargoan egin ziren biak ala biak. Bi topaketetan, ikasgeletan Ekonomia nola irakasten den aztertu zen.

Hauek ziren bi topaketen **helburuak**:

- Economistas sin Fronteras elkarteak argitaratutako txostena ezagutzea: “**La Enseñanza de la Economía**”¹⁶, Txosten horrek zalantzan jartzen du azterketa zientifikoa egiteko asmoz ekonomistak kasuak sinplifikatzera eta jokabideak matematizatzerara (bai banakoak bai gizarteak) eraman dituen pentsamendu neoliberal bakarraren monopolioa, ekonomiaren jatorri soziala eta morala alde batera utziz.
- Bertarutzen direnak parte hartzera bultzatzea, Ekonomiaren irakaskuntzan aztertu behar diren gai nagusiei buruz hausnartzeko eta horiek identifikatzeko, eduki alternatiboak eta ikuspegi kritikoa erabiliz. Hala, irakaskuntzak **prestakuntza integrala** emango du, pertsonen eta komunitateen onurarako.

- Zeharkako zenbait gairen garrantziari buruz hausnartzea: ingurumen iraunkortasuna, genero-ikuspegia, etika edo enpresa-eredu alternatiboak; baita horiek Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioagoa eraikitzeke egiten duten ekarpena ere, ekonomia-curriculumaren prestakuntza edukietatik abiatuta.

Lehenbiziko saioan, “La Enseñanza de la Economía”¹⁷ hitzaldia UNEDeko errektore ohi eta Economistas sin Fronteraseko egungo presidente **Juan Gimeno**k eman zuen. Hitzaldi horretan Ekonomiaren irakaskuntzan **beharrezkoa den diziplinartekotasuna** nabarmendu nahi izan zuen, baita **eguneroko bizitzarako prestakuntza ekonomikoak duen garrantzia** eta zeharkako beste zenbait gairena ere: ingurumen-iraunkortasuna, genero-ikuspegia, etika eta enpresa-eredu alternatiboak. Halaber, topaguneko eztabaida eta ekarpen guztiak **Ekonomia Bidezkoagoa eta Solidarioagoa eraikitzen laguntzeko modu berriak** bilatzera bideratu ziren, ekonomia-curriculumeko prestakuntza-edukietatik abiatuta.

¹⁶ <http://ecosfron.org/ecosfron/wp-content/uploads/Dossier-15-EsF.pdf>

¹⁷ <http://es.slideshare.net/ekonomista/encuentro-la-enseanza-de-la-economia>

Bigarren tailerrean, lehenengo jardunaldia-
ren jarraipen gisa, Word Café¹⁸ metodologiari
jarraitu zitzaion. Jardunaldia Deustuko Uni-
bertsitateko "Ekonomia, Garapena eta Gizarte
Berrikuntza Pertsonentzat" taldeko ikertzaile
nagusi Aitziber Mugarrak dinamizatu zuen.
Topaketan 20 pertsonak parte hartu zuten

(unibertsitateko eta Bigarren Hezkuntzako
irakasleak, Ekonomia ikasleak, ekonomistak,
GGKEetako kideak eta gizarte-mugimenduak:
Desazkundera, Economía del Bien Común...).
Bigarren topaketa horretan, lantaldeen bidez,
azterketa eta hausnarketa egiteko 3 PAUSO
eman ziren. Hauek dira, labur azalduta:

1. pausoa: ¿Zer erronka ditugu aurrean? Zer eskatzen dio gizarteak ekonomiari? Zein dira arazo nagusiak?

- Elementu femeninoak berreskuratzea kulturaren esparruan
- Zainketa-lana ez da behar bezainbeste baloratzen
- Desberdintasunak gainditzea/desberdintasunaren tartea zuzentzea
- Aldaketa bat egitea balioen sisteman (aldaketa)
- Ekonomia globala/tokikoa hobetzeko beharra
- Giza balioak eta balio solidarioak bilatu behar dira / Behar etikoa (finantzak, elikadura baliabideak, energia, izaki bizidunei tratatu txarrak), gehiegizko indibidualismoa
- Arrakasta gehiegi baloratzen da (dirua)
- Lanerako eskubidearen alde egitea
- Herritarrei kontzeptu ekonomikoari buruzko prestakuntza emateko beharra
- Harreman estuagoa naturarekin / Ingurumenaren iraunkortasunik eza
- Deshazkunde ekonomikoaren beharra
- Helburua: ondasunak pilatzea (irabaziak)
- Pertsona eta sistema ekonomiko-soziala / Pertsonentzako ekonomia berreskuratzea, eta ez zenbakientzat
- Egungo ereduak versus eredu kooperatiboa
- Hezkuntza aldatzea, mundua aldatzea (kontsumismoari kritika)
- Gizarteak espero duena, oro har: epe laburrak versus epe luzeak ikuspegia
- Pertsona jakin batzuek ekonomia ulertu nahi dute, informatuta egoteko, eta beste batzuk besteren esku utzi nahi dute
- Komunikazioa: Informazioa eta gardentasuna
- Ekonomia garrantzitsua da, hedabideen bitartez informatzeko, informazio hori zalantzan jartzeko eta herri-
tar gisa iritzi politikoarekin lotutako erabakiak hartu ahal izateko
- Ekonomisten fama txarra: Interesdunak, baina ez interesgarriak



¹⁸ <http://es.slideshare.net/innobasque/metodologa-world-caf-1289300>

2. pausoa: Zer aukera eta ahulezia ditu hezkuntza-sistemak aurreko erronkari aurre egiteko?

AUKERAK

- Ekonomia ikasleen bizipenetatik ezagutzeko aukera, haurtzarotik hasita
- Hezkuntza sistemaren unibertsaltasuna, norbanako guztiak igarotzen gara bertatik
- Irakaskuntza-metodologian bertan, zalantzan jar daitezke curriculum-proiektuaren edukiak, eta ikasleari kritika egiteko aukera zabalik utzi ahal zaio
- Hezkuntza-sistema informala: sentsibilizazioa, eman beharreko lehen pausoa
- Areagotu egin da jakinmina duten irakasleen kopurua (artikulatzeke)
- Irakasle gehienak emakumeak dira. Balio femeninoen alde egiteko aukera (esaterako, zainketa). Ekonomia feministaren ikuspegia sartzea.
- Badaude balio positiboak. Azaleratu eta ikusgai jarri behar dira.
- Hezkuntza-sistema formala: Gazteriarekin lan egitea
- Ekonomiaren ikasketaren "zertarakoa" eta "zergatia" berreskuratzeko aukera
- Trantsiziorako aukera etorkizuneko belaunaldientzat
- Hezkuntza aldatzea, mundua aldatzeko: kontsumismoari kritika sartzea.
- Metodologia berriak ezartzen ari dira; esaterako, Deustuko Etika modulua ("erantzukizuna errentagarri egitea")

AHULEZIAK

- Informazioa vs jakintza
- Irakasleek ez dute behar besteko autonomiarik edukiak zabaltzeko edo aldatzeko / Curriculumaren mugak
- Hezkuntza-komunitatearen deskonexioa: Irakasleak-gurasoak-seme-alabak
- Hezkuntza-sistema informala: askorentzat urruneko gaia da
- Egungo hezkuntza-sistema: ekonomista klasikoa
- Ekonomia ez da nahitaezko irakasgaia hezkuntzan
- Ikasleek ez dute interesik izaten ordainetan notarik jasotzen ez badute
- Hezkuntza-sistemaren erabilera okerra
- Teknologia eta gizarte-sareak hezkuntza-sistemaren alternatiba gisa, hezkuntza eta balioak eskuratzeko
- Sistema ekonomiko nagusiaren balioek definitzen duten hezkuntza-sistema (adibidea: Bolonia, "kreditua" bezalako termino ekonomikoen transposizioa)
- Teknologia berriak ez dira askorik aplikatzen hezkuntzan



3. pausoa: Hezkuntza-sistematik identifikazio-erronkei aurre egiteko proposamenak

- Ekonomia eta enpresako irakasleen sare horizontalak sortzea / Irakasleen arteko komunikazioa: materialak partekatze komunitate bat sortzea eta abar.
- Irakasleek beren buruak ezagutzeko eta eraldatzeko prozesu bat martxan jartzea
- Hezkuntza-komunitatearen kohesioa sustatzen duten ekimenak martxan jartzea
- Oinarrizko errenta, kontuan hartu beharreko eduki espezifikoko gisa
- Ekonomia feministaren eta ekologistaren ikuspegia sartzea
- Beste ekonomia eta enpresa batzuei buruzko azterketa gehitzea
- Karrera amaierako lanak eta praktikek ematen duten aukera aprobetxatzea
- Benetako ekonomia sartzea ikasgelan, beste eragile batzuei ateak irekiz: GGKEak, eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko enpresak eta erakundeak
- Beste ekonomia batzuk aztertzeko tresnak sortzea, adituekin batera
- Ikastaro espezifikoko eskaintza (etika bezalako edukiekin) eta zeharka eduki alternatiboak sartzea curriculum ofizialean (Boloniak bide ematen dio horri, baina irakasleen prestakuntza eta inplikazioa behar da)
- Kontsumoaren ekonomiatik lankidetzaren ekonomiarako aldaketa ahalbidetzea
- Prestakuntza eskaintza, jolasen bidez. "Gamifikazio" espezifikoa adin-tarte bakoitzerako.
- Ekonomia eta Enpresa irakasgaiaren gizarte-zereginaren azterketa sartzea hezkuntza sisteman
- Hezkuntza-sistema adituek diseinatzea, ez politikariek.
- Irakasleen pizgarriak areagotzea (babesa), prestakuntza espezifikorako eta zeharkakotasunerako
- Irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak areagotzea
- Ikasleen gaitasunen garapena sustatzea: irudimena, etika, sormena, elkartasuna, intelektualtasuna, teknologia eta izaera ekintzailea
- Ekonomia Etikarekin batera irakastea

Ondorioak / ideia nagusiak:	Beharrak / erantzunak:
Gaur egun, ekonomistek arreta handiago eskaintzen diote kudeatzeari eta administrazioari, sortzeari baino. Bi ekonomista mota daude: aberatsak aberatsago bihurtzen dituztenak, eta pobreak ez horren pobre bihurtzeaz arduratzen direnak.	Pentsamendu kritikoa sortuko duten ekonomistak behar ditugu, eta arazo sozioekonomiko global eta tokikoetarako tresnak eta konponbideak emango dituztenak.
Ekonomia gizarte-zientzia bat da, eta zaila da neutrala izatea. Eredu matematiko eta estatistikoak hausnartu eta zalantzan jarri behar dira, baita ekonomiaren gizarte-eredua ere.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi-aldaketa: ekonomia desorekatik irakastea, mundua desorekan dagoela abiapuntutzat hartuta, orekaren ikuspegitik irakatsi beharrean. • Ekonomia aniztasunetik eta diziplinartekotasunetik irakastea. • Eztabaida asko sustatzeko eta hausnarketarako eta kritikarako elementuak erabiltzeko beharra; ikuspegi desberdinak ezagutzeko. Beste ikuspegi batzuk ere badaudela irakastea.
Ikasgeletan ekonomia indibidualistagoa irakasten da batez ere: "bila ezazu zure irabazia". Ekonomia ez da "borroka gisa" ere irakasten.	<ul style="list-style-type: none"> • Etika sartzea: herritar orok izan behar du kode deontologiko bat. Enpresa batzuk zuzentzen dituzten ekonomistek erabakiak erraz hartzen dituzte, bideojoko batean ari balira bezala. Piezak mugitzen dituzte, beren erabakiek pertsonen bizitzetan eragina dutela kontuan izan gabe. • Gardentasun ideologikoa: ikertzaile orok, zuzena bada, bere ustezko kasuak abiapuntu dituen ideologia esplizitu egiteko gai izan behar du. • Apalki jokatzeko: gure iragarpenak, ekonomistonak, ez dira dogmak, joerak baizik; "badirudi gerta daitekeela..."

9. Gogoeta egiten jarraitzeko zenbait gomendio:

- } Ekonomia Bidezkoago eta Solidarioago bat eraitzeko gogoeta kritikoak eta eredu ekonomiko hegemonikorako alternatibak ikusgarri egiteak erraztu egiten ditu irakasgai bakoitzaren gizarte-funtzioa zehazteko prozesuak.
- } Ekonomia Bidezko eta Solidarioarekin zera esan nahi dugu funtsean: ekonomia, antolakuntza eta giza harremanenen eraldaketa; ikuspegi hori lekualdatu egin behar da edukietara, bai eta metodologia pedagogikoetara ere: lankidetzakoak, gogoeta eta ikaskuntza kolektibokoak, gogoeta-ekintzakoak, hezkuntza herrikoia...
- } Ikaskuntza-Zerbitzua Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoago eta Solidarioago bat sustatzeko metodologia garrantzitsu gisa osatzen da, ikasleei benetako arazo sozioekonomikoak hurbiltzen dizkie, eta horien aurrean Unibertsitateak erantzun egin dezake irakasgai eta gradu bakoitzeko berezko helburuen eta gaitasunen bidez.
- } Parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko espazio mistoak ikasleen taldeen, Ekonomia Bidezkoago eta Solidarioago baten alde lan egiten duten erakundeen eta Unibertsitate eta inguruaren arteko elkarrizketa eta gogoeta parte-hartzailea egituratzen duten eragin akademikoaren artean.
- } Irakasleen banakako interesa eta motibazioa Unibertsitatean sartzeko atea izan ohi da. Sare hori horizontalki egituratzeak sinergiak sortzen lagunduko du. Aldi berean, eragin politikoa nahiz jardunbide egokien sustapena behar dira ikasketen planetan Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sartzeko.
- } Unibertsitatearen eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren arloan lan egiten duten erakundeen artean lankidetzaren esperientzia sistematizatzeak eta koordinatzeak aukera ematen du ondorio orokorgarrietara iristeko, errentagarritasun akademikoa ateratzeko eta jardunbide egokiak ikusgarri bihurtzeko.
- } Ikerketa sustatzeak lagundu egingo luke akademia eta argumentu garrantzia aitortzen eta ikusgarri egiten Unibertsitatean, administrazio publikoan eta gizartean Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeko eragin politikorako.
- } Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoagoa eta Solidarioagoa sustatzean Genero Ikuspegia txertatzeak eskatzen du diskurtsoak nahiz metodologiak aldatzea: ekonomiarekin lotutako kontzeptuak birdefinitzea; emakumeen premia estrategikoak ikusgarri egitea eta horiei buruzko analisiak txertatzea eta bereizitako datuak sortzea; edukiak zeharkakotzera eta ahalduz pertsonalera bideratutako pixkanakako prozesuaren ikuspegia osatzea, abiapuntuko baldintzetara egokitzuz; aliantzak sustatzea; aplikatzeko gutxieneko betebeharrak ezartzea...

10. Elkarrizketatuko pertsonen eta kolektibo balioztatzaileen datuak eta lana sistematizatzeko metodologia

Unibertsitatean Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa Sustatzeko aholkuen gida hau metodologia parte-hartzaile eta sistematizataile batetik abiatuta egin da. Honen helburua ez da testu akademiko edo teoriko bat izatea, baizik eta unibertsitate campusetako hainbat esparrutan islatzea gizarte- eta ekonomia-eredua eraldatzeko proposamenak ahalbidetu eta agerian jarri nahi dituzten pertsonen eta taldeen esperient-

ziak, jardunbide egokiak, iritziak, ekarpenak, gomendioak, eta abar. Horretarako, nagusiki, eduki eta proposamen eraldatzaileak barneratu nahi ditugu unibertsitatean, Ekonomia Bidezkoa eta Solidariotik abiatuta.

Taula honek eginiko prozesua eta bertan parte hartu duten pertsonak, taldeak eta sareak jasotzen ditu, laburtuta:

Sistematizazio-metodologiaren etapak	Parte hartu duten pertsonak eta taldeak
Unibertsitateko eragileei Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa unibertsitatean sustatzeari buruz egin beharreko elkarrizketen gidoia egitea eta baliozkotzea.	Economistas sin Fronteras, Emaús Gizarte Fundazioa, NESOL (São Pauloko Unibertsitateko Ekonomia Solidarioaren Nukleoa).
Elkarrizketak egitea unibertsitateko eragileei (elkarrizketen sistematizazioa).	OHARRA: elkarrizketa egiteko unean elkarrizketatuek zuten karguak/funtzioak adierazi dira. <ul style="list-style-type: none"> • Baleren Bakaikoa – UPV/EHUko Zuzenbide Graduko irakaslea eta Ekonomia Aplikatuko katedraduna, GEZKIko zuzendaria. • Jon Morandeira – UPV/EHUko Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Graduko irakaslea eta GEZKIko kidea. • Olatz Azurza – UPV/EHUren Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoko irakaslea. Ingeniaritza Elektrikoa Saila. • Maite Arandia, Monike Gezuraga eta M^a Nieves Gonzalez - UPV/EHUko Gizarte Hezkuntzako Graduko irakasleak. • Leire Uriarte – HUHEZIKo (Humanitate eta Hezkuntza Zientziak) eta LANKI institutuko irakasle eta ikertzailea. MU (Mondragón Unibertsitatea). • Iskander Alkate – Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduko coach-a. MU. • Alazne Mujika – Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko dekanordea, Deustuko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea. • Aitor Arbaiza – Deustu Elkartasuna Bilboko arduraduna. • Anais Iglesias - Deustu Push-eko koordinatzailea.

Sistematizazio-metodologiaren etapak	Parte hartu duten pertsonak eta taldeak
Elkarrizketak egitea unibertsitateko eragileei (elkarrizketen sistematizazioa).	OHARRA: elkarrizketa egiteko unean elkarrizketatuek zuten karguak/funtzioak adierazi dira. <ul style="list-style-type: none"> • Idoia Irigaray – Deustu Elkartasuna Donostiako arduraduna. • Juan Pagola – Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko idazkariordea, Deustu Elkartasunako arduradun ohia, "Gizarte Errealitateari Aplikatutako Etika" ikerketa taldeko kidea. • Aitziber Mugarra – Deustuko Unibertsitatea: "Ekonomia, Garapena eta Gizarte Berrikuntza Pertsonentzat" taldeko ikertzaile nagusia. • Milagros Pérez – Donostiako ikasketaburua eta Deustuko Unibertsitateko "Balioen prestakuntza. Aukera kritikoak gizarte-bizitzaren aurrean" irakasgaiaren arduraduna (Bilbo).
Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Unibertsitateen Taldean parte hartzea. Talde horren ekarpenak eta hausnarketak sartzea testuan.	Euskadiko GGKEen Koordinakundeak dinamizatzen du talde hau. Parte-hartze egonkorra duten GGKEak: ISF, Mugen Gaietik, Calcuta Ondoan, Medicus Mundi, Economistas sin Fronteras, Emaús Gizarte Fundazioa.
Kontraste-tailerrak egitea Ekonomisten Euskal Elkargoan. Tailer horiek ekonomiaren irakaskuntzari buruzkoak eta esparru akademikoan Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioa sustatzeari buruzkoak izango dira.	Ekonomisten Euskal Elkargoko Irakasle eta Ikertzaile Ekonomisten Komunitateko kideak, ikasleak eta ekonomialari interesdunak. Dinamizazioez Economistas sin Fronteraseko kideak arduratu dira, zehazki: UNEDeko errektore ohi eta Economistas sin Fronteraseko egungo presidente Juan Gimeno; eta Deustuko Unibertsitateko "Ekonomia, Garapena eta Gizarte Berrikuntza Pertsonentzat" taldeko ikertzaile nagusi Aitziber Mugarra.
Ekonomia-zientzietako ikasleen eta Ekonomia Bidezkoa eta Solidarioaren sareen sareko aldarrikapenak jasotzea.	REAS, Olatukoop, Asociación de Estudiantes de Económicas de la Universidad Autónoma de Madrid, International Student Initiative for Pluralism in Economics.
Genero-tailerra, testuko generoari buruzko zatia garatzeko, eta dokumentuaren genero-ikuspegia baliozkotzeko.	Mugarik Gabe, NESOL (São Pauloko Unibertsitateko Ekonomia Solidarioaren Nukleoa).
Testua egitea.	Economistas sin Fronteras, Emaús Gizarte Fundazioa
Testua baliozkotzea eta azken berrikuspena.	NESOL (São Pauloko Unibertsitateko Ekonomia Solidarioaren Nukleoa).



ANEXO 10.1.

Elkarrizketa- fitxa – lankidetza-hitzarmena hauekin: unibertsitateko irakasleak

1. Interesgarria al da zuretzat Ekonomia Soziala eta Solidarioa sustatzen duten taldeekin lankidetzan aritzea? Lankidetza horrek zer ekarpen egitea nahi zenuke zuri eta zure ikasleei?
2. Zer formula izango lirateke praktikoenak, egingarrienak eta iraunkorrenak lankidetza horretarako? Beste kasu batzuetan parte-hartzen dugun moduen adibideak jarri. Zer aukera ematen ditugun.
 - Irakasgaietan parte-hartzea
 - Praktiketean parte-hartzea
 - Mintegietan parte-hartzea
 - GRALean parte-hartzea
 - Ikerketan parte-hartzea
3. Zer baldintza eta faktore ezar ditzakegu gure lankidetzaren bidez hezkuntza-erantzua ona bermatzeko?
4. Zer material eta baliabide erabili beharko genituzke hezkuntza-prozesu on bat errazteko?
5. Saioen zehaztapena: orduak, ordutegiak, ikasturteko garaia, formatua, materiala, ikasleen baterako ebaluazioa...
6. Edukien eta proposamenen zehaztapena.

ANEXO 10.2.

Elkarrizketa-fitxa honako hauetarako: Unibertsitateko erabakitze-arloak

1. Zer ekarpen egin diezaieke Ekonomia Sozial eta Solidarioak eta arlo horretan lan egiten dugun taldeok zuen unibertsitateari?
2. Zer ekarpen egin diezaioke zuen unibertsitateak Ekonomia Sozial eta Solidarioari?
3. Zer ekintza arlo izan daitezke egokienak eta eraginkorrenak lankidetzak eta ekarpen horretarako?
4. Zer formula/modu daude edo jarri beharko genituzke abian?
 - Graduen eta masterren baitan:
prestakuntza, ikerketa, praktikak, beste batzuk.
 - Campusean:
5. Zer pertsonarekin jarri beharko ginateteke harremanetan lankidetzako formula eta modu horiek abian jartzeko?
6. Lankidetzak horien zein alderdi izan daitezke motibatzaileak eta zein alderdik egin diezaieke ekarpena irakasleen garapen profesionalari? Nola hobetu dezakete curriculumak eta garapen profesionalen aurrera egitea?
 - Nola eragin daiteke Ekonomia Sozial eta Solidarioko jarduerak bultzatzen dituzten irakasleek beren garapen profesionalen ere onura izateko?
7. Gaia errazten edo horri buruz gogogabetzen duten hainbat lege alderdi daude:
 - Ekonomia Sozial eta Solidarioa sartzeko unibertsitateko curriculumean eta helburu estrategikoetan.
 - Ekonomia Sozial eta Solidarioa sartzeko graduetan (antzeko gaietan) eta masterretan. Notan eragina duen hezkuntza formala.
 - Lankidetzak/prestakuntza moduak, talde kolaboratzaileentzako baliabideekin.
8. Zer hobetu beharko genuke arlo horretan lan egiten dugun erakundeok unibertsitatearekin lankidetzak eraginkorragoa izateko?

11. Erreferentziak eta esteka interesgarriak

1.- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren genero-ikuspegiari buruzko nazioarteko adierazpena:

http://www.economiasolidaria.org/documentos/declaracion_internacional_por_la_perspectiva_de_genero_en_la_economia_social_solidaria

2.- REAS 2014-2018 plan estrategikoa

http://www.economiasolidaria.org/noticias/asamblea_2014_reas_euskadi

3.- Ekonomia Sozialaren Liburu Zuria

http://www.economiasolidaria.org/documentos/libro_blanco_de_la_economia_social

Liburu Zuri honen bidez, Ekonomia Sozialaren arloko enpresek eta erakundeek Europar Batasunaren mailako zenbait ekintza proposatzen dituzte. Ekintza horien helburua da sektorearen garapena babestea eta garapen ekonomiko iraunkorrari, kalitatezko enpleguen sorkuntzari eta gizarte-kohesioari egiten dion ekarpena ahalik eta handiena izatea.

4.- “Una Economía de Mucho Cuidado”

<http://ecosfron.org/portfolio/o-una-economia-de-mucho-cuidado/>

Zainketen ekonomiari buruzko gida didaktikoa; bereziki irakasleentzako tresna pedagogiko gisa sortu da.

5.- “La Enseñanza de la Economía” txostena

<http://ecosfron.org/ecosfron/wp-content/uploads/Dossier-15-EsF.pdf>

6.- Ekonomia Solidarioaren eta Giza Eskubideen Behatokia:

<http://economyayderechos.observatoridesc.org/>

7.- Visión global de la economía social y solidaria: convergencias y contrastes en los conceptos, definiciones y marcos conceptuales:

http://www.economiasolidaria.org/documentos/ripess_presenta_su_vision_global_de_la_ess

Visión global de la economía social solidaria: convergencias y contrastes en los conceptos, definiciones y marcos conceptuales testua, RIPPESek argitaratutakoa, elkarrizketa- eta kontsulta-prozesu baten emaitza da. Hainbat urte behar izan ziren hori egiteko. Praktikei, kontzeptuei eta erreferentzia-esparruei buruz hausnartzeko prozesua sarearen lanaren ezaugarri izan da Elkartasunaren Globalizazioaren lehen topaketa egin zenetik, 1997an, Liman. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko ikuspegia eta konpromisoa sendoak izan dira, baina horien mendeko definizioek eta esparru kontzeptualek garatzen jarraitzen dute.

RIPPESek Ekonomia Sozial eta Solidarioko eragileak gonbidatzen ditu dokumentu hau erabiltzera erreferentziatzeko tresna gisa, Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako eredu alternatibo bat eraikitzeke eta sustatzeko gauzatzen dituzten ekintzei buruzko hausnarketa egitean, hezkuntzan eta ekintza horiek agerian jartzean. Ikuspegi globalak eztabaidetan sortutako elementu nagusiak barne hartzen ditu. Horrez gain, hausnarketa kolektiboarekin jarraitzeko beharra duten beste arlo batzuk identifikatzen ditu.

8.- 8.-Ekonomia Sozial eta Solidarioko aldizkariak:

Estatu-mailan:

<http://ciriec.es/publicaciones/revista-de-economia/>

http://issuu.com/gezkiupvehu/docs/koopkongresua_aldizkaria

Nazioartean:

http://www.economiasolidaria.org/documentos/revista_otra_economia_n_6 (Otra Economía aldizkaria)

http://www.economiasolidaria.org/documentos/globalizando_la_economia_solidaria_boletin_de_ri-pess_junio_2015 (Boletín de RIPESS)

9.- Ikerketa feministarako metodologiari buruzko ikastaroa: **DISKURTSOAREN AZTERKETA KRITIKOA, IKUSPEGI FEMINISTATIK** http://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/content/-/asset_publisher/tEy8/content/curso-metodologia-investigacion-feminista?redirect=http%3A%2F%2Fwww.ehu.eus%2Fes%2Fweb%2Fberdintasuna-direccionparalaigualdad%2Fhome%3Fp_p_id%3D101_INSTANCE_3aUP%26p_p_lifecycle%3D0%26p_p_state%3Dnormal%26p_p_mode%3Dview%26p_p_col_id%3Dcolumn-2%26p_p_col_pos%3D3%26p_p_col_count%3D4

10.- María Goyri sariaren deialdia, UPV/EHUko master amaierako lanetan genero-ikuspegia sartzen dutenentzat

http://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/content/-/asset_publisher/tEy8/content/convocatoria-maria-goyri-2015?redirect=http%3A%2F%2Fwww.ehu.eus%2Fes%2Fweb%2Fberdintasuna-direccionparalaigualdad%2Fhome%3Fp_p_id%3D101_INSTANCE_3aUP%26p_p_lifecycle%3D0%26p_p_state%3Dnormal%26p_p_mode%3Dview%26p_p_col_id%3Dcolumn-2%26p_p_col_pos%3D3%26p_p_col_count%3D4

11.- Francisca de Aculodi sariaren deialdia, UPV/EHUko gradu amaierako lanetan genero-ikuspegia sartzen dutenentzat

http://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/content/-/asset_publisher/tEy8/content/convocatoria-francisca-aculodi-1415?redirect=http%3A%2F%2Fwww.ehu.eus%2Fes%2Fweb%2Fberdintasuna-direccionparalaigualdad%2Fhome%3Fp_p_id%3D101_INSTANCE_3aUP%26p_p_lifecycle%3D0%26p_p_state%3Dnormal%26p_p_mode%3Dview%26p_p_col_id%3Dcolumn-2%26p_p_col_pos%3D3%26p_p_col_count%3D4